



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

HEZKUNTZA  
ETA KIROL  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN  
Y DEPORTE

**LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA**

**IBAI IKASTOLAKO PATIOAREN ETA JOLAS-ORDUAN  
GERTATZEN DENAREN ANALISIA**

**EGILEA: MIKEL ARRUTI IPARRAGIRRE**

**TUTOREA: AINARA DUQUE INGUNZA**

**IKASTURTEA: 2022-2023**

## LABURPENA

Ikasleek astean ordu asko pasatzen dituzte eskolan eta horregatik oso garrantzitsua da eskolako espazio guztiak koherentziaz eta eskolako proiektua kontuan hartuta antolatzea. Ikasleentzako oso garrantzitsua den espazio bat patioa da, bertan modu askeago batean aritzeko, gainontzeko ikasleekin modu libreago batean sozializatzeko eta haien mundua esploratzen jarraitzeko aukera aparta dute. Gainera, jolas-orduak alderdi akademiko eta kognitiboan onura handiak ekartzen ditu ikasleentzat ere. Ikerketa desberdinek diote, naturarekin erlazioa duten patioek onura asko sortzen dituztela ikasleengan eta jolas-orduak are eta onuragarriagoak bilakatzen dituztela ikasleentzako. Hala eta guztiz ere, eskola gehienetan patioak oso tradizionalak dira eta kirol azpiegiturekin osatutako zementuzko zoladurak izan ohi dira.

Ibai Ikastolan honen adibide garbi bat aurki dezakegu. Patioak zementuzko zoladuraz osaturik daude eta hauen gehiengoak futbolera eta saskibaloira jolasteko daude pentsatuak. Gainera, Ibai Ikastola mendixka batean kokatuta dagoen arren ikasleak ingurune naturaletik urruntzen ditu. Horretaz gain, Ibai Ikastolak sistema berezi bat erabiltzen du jolas-orduetarako; astelehen, asteazken eta ostiraletan ezin da baloia erabili, asteartean futbolera jolasteko eguna dute eta ostegunean baloira jolasteko eguna baina futbola ez den jolas batean aritzeko.

Ibai Ikastolako patioaren eta jolas-orduaren analisia egiteko bi instrumentu nagusi erabili dira; ikasleekin banan-banan egin den elkarrizketa bat eta jolas-orduan zehar egin diren behaketa batzuen bitartez, erregistro orri batean jaso direnak. Guzti hau aztertu ondoren, esan dezakegu Ibai Ikastolako patioak tradizionalakiak direla eta berrikuntza bat behar dutela, ikasleak ingurune naturalera gerturatuz. Gainera, Ibai Ikastolak erabiltzen duen sistemak ez ditu onurarik ekartzen eta ikasleak modu askeago batean ibili beharko lukete.

Hitz gakoak: patioa, jolas-ordua, natura, jolasa, askatasuna.

## RESUMEN

Los alumnos pasan muchas horas a la semana en la escuela y, por eso, es muy importante organizar todos los espacios escolares con coherencia y teniendo en cuenta el proyecto escolar. Un espacio muy importante para el alumnado es el patio, donde tienen la oportunidad de actuar de una manera más libre, socializar de una manera más natural con el resto del alumnado y seguir explorando su mundo. Además, el recreo aporta importantes

beneficios académicos y cognitivos también para el alumnado. Diferentes estudios señalan que los patios relacionados con la naturaleza generan muchos beneficios en el alumnado y hacen que el recreo sea aún más beneficio para el alumnado. A pesar de ello, en la mayoría de las escuelas los patios son muy tradicionales y suelen ser pavimentos de cemento con infraestructuras deportivas.

En Ibai Ikastola podemos encontrar un claro ejemplo de ello. Los patios están formados por pavimentos de cemento y la mayoría de ellos están pensados para jugar al fútbol y al baloncesto. Además, aunque Ibai Ikastola esté situada en una colina, alejan a los alumnos del entorno natural. Por otro lado, Ibai Ikastola utiliza un sistema especial para las horas de recreo; los lunes, miércoles y viernes no se puede usar el balón, el martes es el día para jugar al fútbol y el jueves se permite a los alumnos utilizar el balón para un juego que no sea el fútbol.

Para el análisis del patio y el recreo de Ibai Ikastola se han utilizado dos instrumentos principales; entrevistas individualizadas con los alumnos y una serie de observaciones realizadas durante el recreo que se han recogido en una hoja de registro. Tras analizar todo esto, podemos decir que los patios de Ibai Ikastola son demasiado tradicionales y necesitan una renovación, acercando al alumnado al entorno natural. Además, el sistema que utiliza Ibai Ikastola no aporta beneficios y los alumnos deberían tener una mayor libertad.

Palabras clave: patio, recreo, naturaleza, juego, libertad.

## ABSTRACT

Students spend many hours a week at school and that is why it is very important to organize all school spaces coherently and taking the school project into account. The playground is a very important space within the school area. Here, students have the opportunity to act in a freer way, socialize in a more natural way with the rest of the students and continue exploring their world. In addition, recess provides important academic and cognitive benefits for students. Different studies indicate that nature-related playgrounds generate many benefits and make recess even more beneficial for students. In spite of this, in most schools the playgrounds are very traditional and are usually cement pavements with sports infrastructures.

In Ibai Ikastola we can find a clear example of this. The playgrounds are made of cement pavements and most of them are designed to play soccer and basketball. In addition,

although Ibai Ikastola is located on a hill, they take the students away from the natural environment. On the other hand, Ibai Ikastola uses a special system for recess hours; on Mondays, Wednesdays and Fridays balls cannot be used in the playground, on Tuesday students play soccer and on Thursday students are allowed to use a ball to play a game other than soccer.

For the analysis of the playground and recess at Ibai Ikastola, two main instruments have been used; individualized interviews with the students and a series of observations made during recess that have been collected in a record sheet. After analyzing all this data, it can be said that the Ibai Ikastola playgrounds are too traditional and need a renovation, bringing the students closer to the natural environment. In addition, the system used by Ibai Ikastola does not bring benefits and students should have more freedom.

Key words: playground, recreation, nature, play, freedom.



## **AURKIBIDEA**

<b>1.- SARRERA</b>	<b>1</b>
<b>2.- MARKO TEORIKOA</b>	<b>2</b>
2.1.- Eskola patioa	2
2.1.1.- Egungo patioa	3
2.2.- Patioa eta jolas-ordua	4
2.2.1.- Patio eta jolas-ordua	6
2.2.2.- Jolas-orduaren onurak	8
2.3.- Jolasa	10
2.3.1.- Jolas askea eta gidatutako jolasa	11
2.3.2.- Jolasaren funtzioak	12
2.4.- Ikasleak eta natura	13
2.4.1.- Naturak ikasleengan sortzen dituen onurak	14
2.4.2.- Naturarekin erlazioa duten patioen ezaugarriak	17
2.5.- Ibai Ikastola	18
2.5.1.- Sarrera	18
2.5.2.- Espazioa	19
<b>3.- HELBURUAK</b>	<b>20</b>
<b>4.- METODOLOGIA</b>	<b>20</b>
4.1.- Lagina	20
4.2.- Instrumentua	20
4.2.1.- Ikasleekin elkarrizketak	20
4.2.2.- Behaketa	21
4.3.- Prozedimendua	22
4.3.1.- Ikasleekin elkarrizketa	22
4.2.2.- Behaketa	22
<b>5.- EMAITZAK</b>	<b>23</b>
5.1.- Ikasleekin elkarrizketa	23
5.2.- Behaketak	27
5.2.1.- Baloirik gabeko eguna 1	27
5.2.2.- Asteartea	29
5.2.3.- Baloirik gabeko eguna 2	30
5.2.4.- Osteguna	32
<b>6.- ONDORIOAK</b>	<b>34</b>
6.1.- Elkarrizketa	34
6.2.- Behaketa	35
<b>7.- HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK</b>	<b>37</b>
<b>8.- BIBLIOGRAFIAK</b>	<b>39</b>
<b>9.- ERANSKINAK</b>	<b>44</b>
9.1.- Ikasleekin elkarrizketak	44

9.2.- Erregistro orria	51
9.3.- Zuzendariarekin elkarizketa	54
9.4.- Ibai Ikastolako patioaren argazkiak	56
9.4.1.- Sarrera/Patio 1. zikloa	56
9.4.2.- Patioa HH2	57
9.4.3.- Patioa HH3	58
9.4.4.- Patioa HH4	59
9.4.5.- Patioa HH5	59
9.4.6.- Patioa 2. zikloa	60
9.4.7.- Patioa 3. zikloa	61
9.5.- Dantza eta gorputz adierazpenerako guneak	61

### GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. grafikoa	23
2. grafikoa	23
3. grafikoa	24
4. grafikoa	24
5. grafikoa	25
6. grafikoa	25
7. grafikoa	26
8. grafikoa	26
9. grafikoa	27
10. grafikoa	28
11. grafikoa	28
12. grafikoa	29
13. grafikoa	29
14. grafikoa	30
15. grafikoa	30
16. grafikoa	31
17. grafikoa	31
18. grafikoa	32
19. grafikoa	33
20. grafikoa	33

## 1.- SARRERA

Gaien zerrenda ikusi nuenean oso argi eduki nuen nire lana patioaren inguruan jorratuko nuela. Hautabide hau irakurri nuenean aukera oso polit bat zela pentsatu nuen, hezkuntzarako oso garrantzitsua den heinean baina aldi berean zenbait kasutan honek duen ahalmena gutxietsi egiten da. Honenbestez, garrantzi handia duen gai bat bestela ikusten dut.

Gai hau oso gustoko nuen arren, ez nekien oso ondo lana nola bideratu, ez nekien zerren inguruan hitz egingo nuen lanean. Kezka guzti hauek alde batera egin zuten Donostiako Ibai Ikastolan praktiketan hasi nintzenean. Ideia paregabea iruditu zitzaidan bertako patioa aztertzea eta aldi berean ikasleek jolas-orduan zehar dituzten jarrera eta jokabideak aztertzea. Honetaz gain, ikasleek patioaren inguruan duten iritzia ere jasotzea ideia paregabea iruditu zitzaidan. Honela, lan honen helburu nagusia Ibai Ikastolako patioa aztertzea da, nire ikuspuntutik eta bai 3. B mailako ikasleen ikuspuntutik eta bestetik hauek jolas-orduan duten jokabidea ere azalduko dut.

Beraz, Ibai Ikastolako zuzendariari nire ideia proposatu nion eta buruan buen ideia hau gauzatzeko baimena eskatu nion. Ibai Ikastolako zuzendariak esan zidan haiek ez zutela inongo arazorik, baina ikasleen pribatutasuna mantentzeko eskatu zidaten, hauen izen eta argazkiak ekidituz. Hori hasieratik argi nuen zerbait zen, beraz, lanean ez da honelako informaziorik agertuko, ikasleen pribatutasuna errespetatuz.

Lanaren lehenengo atal nagusia marko teorikoa da, bertan patioen, jolas-orduen informazioa eskeiniko dut, gainera jolasak eta naturak eskola-patioan duten garrantziaz hitz egingo dut ere. Marko teorikoarekin amaitzeko, Ibai Ikastolako zenbait informazioa baliagarri emango ditut. Ondoren, lan hau gauzatzeko metodologia azalduko dut, jarraituz honen erantzunak emanaz. Eraitza hauei zentua emateko intentzioz, ondorio batzuk aterako ditut eta beharrezkoa izango balitz hobekuntza proposamen batzuekin amaituko dut. Lanaren azkeneko atalean, erreferentziak eta eranskinak aurki ditzazkegu.

Amaitzeko eskerrak eman nahiko nizkioke, alde batetik, Ibai Ikastolari eta 3.B mailako ikasleei haien prestutasunagatik eta, bestetik, nire tutore izan den Ainara Duqueri eskeini didan ezinbesteko laguntzagatik.

## 2.- MARKO TEORIKOA

### 2.1.- Eskola patioa

Eskolako patioa topaketen eta desadostasunen gunetzat hartzen da (Jaramillo, 2014), eta gune horretan subjektu jakin batzuk bizi dira, hala nola ikasleak eta irakasleak, non jolas-ordu gisa definitzen den atsedenaldi bat gauzatzen den (Pavia, 2005). Bestalde, Pellegrinik eta Bohnek (2005) eskola patioa, haurrek trebetasun garrantzitsuak ikas ditzaketen gune gisa definitzen dute, hala nola lankidetzak, gatazken konponbidea eta negoziazioa. Gainera, eskolako patioa ikasleek trebetasun fisikoak eta motorrak garatzen dituzten lekua ere izan daiteke.

Hasteko, Laorden eta Pérezek (2002) hitz hauek jaso nahi nituzke: “Gure eskolako edozein gune izan daiteke hezkuntza-espazio, eta, beraz, gure proiektu eta programekiko koherentziaz antolatu beharko dugu” (134. or.).

Tradizioz, jolastokian pasatzen den denbora eta espazioak dituen aukerak ez dira garatu ikastetxeetan bere osotasunean. Hala ere, espazio horietan gertatzen dira haurren lehen gizarte-harremanak beren familia-eremutik kanpo. Azken boladan, patioak ikasgeletatik haratago ikasteko espazio gisa ikusten hasi dira, pertsonen arteko harremanak, sormena, lankidetzak, inklusioa, bizikidetzak eta herritarren kompetentzia garatzeko trebetasunak indartuz (Espainiako Gobernua, d.g.).

“Sormena lagungarria izan daiteke espazio komunei probetxua ateratzeko, hala nola korridoreei, txokoei, eskailereei, atondoei, patioei edo lorategiei... Horri esker, erakusketak egiteko espazioak ezarri ahal izango ditugu, gure gauzetarako espazioa, begiratzeko, deskubritzeko... jarduera desberdinak gauzatzeko txokoak eta esperimintatzeko tailerrak” (Laorden eta Pérez, 2002, 134. or.). Kontuan izan behar dugu Espainiako ikasleek, egunean batez beste 30 minutu pasatzen dituztela jolastokian, honenbestez, 150 minutu aste bakar batean. Alde horretatik, eskola patioak duen garrantzia sekulakoa da eta ezin diogu aukera horri ihes egiten utzi. Hezkuntza komunitatean adostasun argia dago patioa hezkuntza-espazio bat gehiago dela, oso garrantzitsua, eta bertan berdinak diren arteko sozializazioa, natura, aire zabala eta klima-aldaketaren aurkako borroka elkartu daitezkeela (Cortés eta Curcoll, 2021).

Eskolako jolastokia funtsezkoa da haurren eta gazteen garapenerako, bertan baitute aukera ikaskideekin elkarrengatik eta jolas jarduerak egiteko. Zenbait ikerketaren arabera,

eskola-patioak, ikaskuntza soziala ez ezik, ikasleen garapen fisikoa eta emozionala ere errazten du (Pellegrini & Bohn, 2005; Murray et al., 2011).

Hala ere, eskolako jolastokiak bere funtzioa bete dezan, beharrezkoa da ikasleen jarduerak garatzeko espazio segurua, inklusiboa eta egokia izatea (Pellegrini & Bohn, 2005). Hainbat joko eta jarduera motatarako izendatutako eremuak egon behar dira, eta eremu horiek ondo mantenduta eta material eta ekipo egokiz hornituta egon behar dute. Gainera, eskolako langileek ikasleen portaera gainbegiratzeko eta kudeatzeko gaitasuna izan behar dute aisialdian (Henderson & Mapp, 2002).

Gaur egun, jolastokiari ematen zaion erabilgarritasuna aisialdirako espazio huts bat bezala da, eta bertan egiten diren jarduera gehienek kirol jarduerak izateko joera dute. Horregatik, espazio hori jolas fisikoa sustatzeko bideratuta dago, baina Ponsel (2017) dio aisira bideratua dagoen espazioa izateaz gain, jolastokia ikaskuntzak sortzeko eta hezkuntza aktibo eta inklusiboa bultzatzeko espaziotzat hartu behar dela.

#### 2.1.1.- Egungo patioa

Gaur egun ikastetxeetan ikasleen eskura dauden jolastokiak oso antzekoak izaten dira. Lehen bistan ikusi dezakegunari dagokionez, espazioetan zementua da nagusi, eta horietan zenbait saski eta porteria ager daitezke, eta, oro har, besterik ez. Espazioak aukera gutxi eskaintzen dituela egiazta dezakegu, edo gehiegi zentzurik gabe. Elementu batzuk ez dira oso erakargarriak eta gainera arriskutsuak izan daitezke ikasleak egunero erabiltzen duen espazio honetan, eta hori ez luke honela izan beharrik. Cols eta Fernándezen (2016) hurrengo baieztapenean egungo jolastokien deskribapen bat eskeintzen digute:

Normalean espazio lauak dira, askotan zementuzkoak, lur zatiren bat eduki dezaketena eta zuhaitz batzuekin asko jota. Hauek ez dituzten kontuan edukitzen ikasleen rol eta behar desberdinak. Espazio monotonoak, jolas desberdinak praktikatzeko aukera gutxi eskeintzen dutenak, non haurrek mugimendua oinarriztat dituzten jarduerak gauzaten dituzten, azken finean, kirol jarduerak egiten dituzte, non haur guztiak ez diren kontuan hartzen. (5. or.).

Freirek (2011) azaltzen duen bezala, eskola patioak normalean zementuz osatutako zoladura bat besterik ez da izaten. Bertan ikasleek kirol azpiegituraren bat aurki dezakete, saskibaloiko saski bat edo futboleko porteriak izaten dira normalean. Kasurik onenean, zuhaitzen bat dago, eta agian harez osatutako gunek bat ere topa dezakegu.

Marínek dioenez (2010, 37. or.), “eskolako jolastokietan legez behartuta daude porteriadun futbol-pista bat izatera, eskolako patio osoa hartzen duena, eta, gainera, ia ikastetxe guztiek eskaintzen dizkiete haurrei futboleko pilotak”. Ondorioz, futbola gustuko duten ikasleek jolastokiaren erdiko espazioa erabiltzen dute, eta futbola gustuko ez duten ikasleek, berriz, patioaren zokoetan sartzen dira.

Alde batetik, Marínek (2012) azaltzen digu zergatik dagoen eremu horretan esku-hartze falta hori; izan ere, baieztatzen du, beharbada, jolasa hezkuntza-jarduera gisa aintzatetsi ez izanak denbora eta ahalegin falta ekarri duela jolastokiak jolasgune eta, beraz, garapen eta hezkuntza gune gisa diseinatzean. Kontuan izan behar dugu eskola patioaren baldintza fisikoak egokiak ez direnean hezkuntza aukerak murriztu egiten direla (Marín, 2010, 93. or.).

## 2.2.- Patioa eta jolas-ordua

XIX. mendearen hasieran, Samuel Wilderspin izeneko irakasle ingeles batek ikusi zuen bere ikasleak nekatuak eta gutxi kontzentratuak zeudela egunaren amaieran. Wilderspinek pentsatu zuen atsedendaldi bat behar zutela jolasteko, harremanak izateko, erlaxatzeko eta indarrak kargatzeko. Gainera, Wilderspinen ustez, jolasaldi hori ere ikaskuntzaren parte zen: jolas-ordua beste mundu bat zen, non ikasleak libreak ziren eta irakasleek soilik akademikoak ez ziren bizi aholkuak eman zizkieten ikasleei. Garai hartan, atsedena elementu hezitzaile eta osasungarritzat hartzea gauza berritzailea zen baina oso eraginkorra izan zenez, beste herrialde batzuetako eskolentan jolas-ordua ezartzen hasi ziren (Enforex, d.g.).

Eskolako patioa eskolako leku edo espaziotzat hartzen da, baina jolas-ordua eskola egunean atsedendaldi gisa ematen den denbora eta espazio horretan egiten diren jarduerak dira (Pavía 2005).

Jolas-ordua espazio ez-kurrikular gisa definitu da, klaseen artean ematen dena gazteek aisialdiko jardueretan garatu daitezkeen (Ridgers & Stratton, 2005). Pérez eta Collazosek (2007) adierazten dute jolasaldia denbora-tarte bat dela, non ikasleek aisi jarduera desberdinak gauzatzen dituzten haien gustu eta borondatearen arabera, zeinak irakasleen arreta berezia eskatzen duen.

Idea hauek kontuan hartuta, hainbat definizio ditugu, bakoitza alderdi desberdin batean oinarriturik. Autore batzuen arabera, atsedendaldi hartzeko eta jarduera libreak egiteko

denbora da jolas-ordua, hala nola Pavia (2005); “Jolas-ordu hitza bere jatorrian eskolako eguneroko hizkeratik hartu zen, eta geroztik atsedendaldi bat izendatzeko erabiltzen da, lana eteteko, hezkuntza-laneko errutinaren testuinguruan” (19. or.).

Burciónek (2014) argudiatzen du jolasgaraia espazio eta denbora tarte bat dela, non ikasleak integralki garatzen diren, eta elkarren artean sozializatzeko aukera duten une bakarretako bat. De Franciscok (2016) argudiatzen du “eskola testuinguruan jolasgaraia dela gizarte trebetasunak gehien jokoan jartzen diren unea, eta beste berdinekiko elkarreraginak garatzen laguntzen duen unea, eskola gatazken iturri nagusia ere izanik” (7. or.). Kasu honetan, garrantzi handia ematen zaio berdinen artean ikaskuntza eta gatazka gehien sortzen diren tokia izateari, elkarreragin ugari izaten direlako.

Beste ikuspuntu bat emateko, Paviak (2005) adierazten du jolasaldia une garrantzitsua dela, han ikasten baitute ikaskideekin elkarreragiten, negoziatzen, partekatzen eta gatazkak konpontzen. Hala ere, nabarmentzekoa da helduek askotan mugatu egiten dutela hurrek askatasunez jolasteko eta espazioa esploratzeko duten gaitasuna, eta horrek haien garapena oztopa dezakeela. Irakasleek “zaintza pasiboaren” ikuspegia hartu behar dute, bertan egon behar dute, baina ez dute zuzenean esku hartu behar haurren jolasean, arriskuko edo gatazkako egoera bat gertatzen ez bada. Gainera, hurrei modu autonomoan esploratzeko eta esperimintatzeko aukera emango dieten guneak, jarduerak eta jolasak antolatzea iradokitzen du autoreak.

Beraz, jolas-orduaren hiru alderdi garrantzitsu ikusi ditugu. Alde batetik, eskola errutinako atsedendaldi bat da, bestetik, ikaslearen garapen integralerako funtsezko unea da; bertan, hainbat interakzio eta gatazka gauzatzen direlarik, eta, azkenik, irakaslearen zaintza pasibo baten garrantzia.

Pérez eta Collazosek, Chavesengandik (2013) aipatua, jolas-orduaren denboraren eta ikasgelako denboraren arteko konparazio bat ezartzen dute, eta hauen ekarpenean jolasgune honen abantailak eta onurak egiazta daitezke:

Gelan, haurrak ezin du aukeratu norekin eseri, jolastokian norekin jolastu aukeratu dezake; gela espazio itxia da, jolastokia espazio irekia da; ikasgelan, kontrola ia erabatekoa da; jolastokian, berriz, kontrola ez da erabatekoa; jolasaldiak askatasuna esan nahi du, bakoitza den bezalakoa izateko ahalmena, hau da, jolastokia

aisialdirako, askatasunerako eta dibertsiorako gunea da; han, ordea, ez dago mugarik, bai, ordea, izatearen benetako adierazpena (15. or.).

Gainera, ikasleek ikasgelan adierazten ez dituzten jokabideak ikusteko aukera ematen die irakasleei, eta, beraz, ikasle bakoitzari buruzko ezagutza zabaltzeak irakaskuntza eta ikasleen disziplinarekiko kontrola hobetzen ditu (Pavía, 2005).

### 2.2.1.- Patio eta jolas-ordua

Oro har, eskolako jolastokiaren espazioa eta erabilera desberdina izaten da Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan. Eskolako patioak aztertzen ditugunean, Haur Hezkuntzako espazioetan honako gauza hauek bereiz ditzazkegu (Espainiako Gobernua, d.g.):

- Ikasleek elkarrekin jolasteko joera dute.
- Espazioek erantzuna eman ohi diete generoaren ikaskuntzak hain nabarmena ez den joera duten praktika eta jolasei.
- Batzuetan, gizartean emakumei eta gizonei esleitutako rolek markatutako espazioak eta objektuak hautematen dira.
- Joko sinbolikoan duten esperientzia genero-ikuspegiarekin aztertzen badugu, etxeko, familiako eta edertasuneko eredu tradizional femeninoak ikusiko ditugu, baita maskulinoak ere, indarrez, oldarkortasunez, lehiakortasunez eta boterez.
- Ez da ohikoa Lehen Hezkuntzako ikasleak sartzea, nahiz eta ikasle horietako asko espazio horietaz gehiago gozatuko luketen.
- Haur Hezkuntzako ikasleek Lehen Hezkuntzako patioaren funtzionamendu-arauak begiratu eta behatu ohi ditu, badakite haien etorkizuneko patioa izango dela.
- Elementu eta espazio natural gutxi daude.
- Horma batek, sare batek edo ate batek Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako patioak bereizten ditu.

Haurrak hazten doaz eta hezkuntza etapa aldatzen dute, eta bat-batean Lehen Hezkuntzako patioan honako hau aurkitzen dugu: (Espainiako Gobernua, d.g.):

- Espazio honetan, probabilitate handiz, ezin dute orain dela hilabete batzuk baino ez zituzten joko eta proposamenetaz gozatu: harez betetako guneak, txirristak, zabuak, panpinak, gurdiak, motorrak, mozorroak, etab.



- Jolas sinbolikoaren aukerak, Haur Hezkuntzan presentzia handiagoa izan ohi zutenak, urriak edo existentziarik gabekoak dira.
- Ikasle zaharrenek patioaren espazio gehiago hartzeko joera izaten dute.
- Kirol pista, futbolerako guneak eta saskibaloiko saskiak dira Lehen Hezkuntzako gune nagusienak.
- Gero eta gatazka gehiago sortzen dira, joko eta kirol lehiakorrak ugaritu egiten direlako.
- Normalean, neskek eta mutilek segregazioa hasten eta praktikatzen dute jokoan, orokorrean mutilak eta neskak gauza desberdinetan jolasten hasten dira.
- Prozesu bat hasten da. Prozesu horretan, neskek kirola egiteari uzten diote pixkanaka, eta fisikoki pasiboagoak diren jardueretikiko interes handiagoa erakusten dute.
- Futbola gustuko ez duten haur batzuek ere pista-espazioak okupatzen dituzte, jarduera horrek sortzen duen presentziak, garrantziak eta estatusak eraginda, eta gizarteak markatutako genero rolaekin bat egiteko nahiarekin batera.
- Futbola gustuko ez duten neskek ere, taldekideekin espazioa, denbora eta jolasa partekatu nahi dituztelako, pistako espazioak betetzen dituzte.
- Irakasleak jolastokia zikloka sekzionatzera irits daitezke, eta ikastetxeko adin desberdinen artean jolasteko aukerak baliogabetu. Gainerako ikasleek pilota kolperen bat jasotzeko beldurra da arrazoi nagusia.
- Elementu eta espazio natural gutxi daude.

Hazten jarraitzen dute, adindu egiten dira, askoz autonomia eta erabakitze gaitasun handiagoa duten pertsonak dira, hezkuntza mailak eta etapak gainditzen dituzte eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako patioan honako hau aurki dezakegu (Espainiako Gobernu, d.g.):

- Asfaltoa eta pistak nagusi dira.
- Fisikoki aktiboak diren jokoek geroz eta presentzia urriagoa dute, urteak pasa ahala geroz eta ezhoikoagoak dira.
- Ikasleek interes handia dute elkartzeko, hitz egiteko eta konpainiaz gozatzeko, eta oso espazio gutxi daude zuzenean prestaturik harreman mota hau sustatzeko.
- Jokorako eta jarduerarako proposamen gutxi.
- Ideai sorta handi bat edukiko genuke partaidetza-prozesu bat irekiko bagenu, ikasleek jolas-orduan zehar egin nahiko luketeena adierazteko aukera izango balute.
- Elementu eta espazio natural gutxi.

## 2.2.2.- Jolas-orduaren onurak

Eskolako jolas-orduak onura asko dakarzkie haurrei. Picak (2010) zazpi arrazoi nabarmentzen ditu hurrek atseden hauek behar izateko:

<b>1- Mundu guztiak jasotzen du atsedenaren onura</b>	<p>XIX. mendearen amaieran egindako ikerketek erakusten dute pertsonak hobeto eta azkarrago ikasten dutela ahaleginak banatuta daudenean, ahalegin hauek aldi batez egin beharrean. Hau da, atsedenaldiak eta hutsarteak barne hartzen dituen lana eraginkorragoa da lanaldi luzeetan egiten dena baino.</p> <p>Haur txikiek ez dutenez informazioa adinekoek bezain modu eraginkorrean prozesatzen, nerbio-sistemaren heldutasun ezagatik eta esperientzia ezagatik, horiek dira egiturarik gabe jolasteko atseden bat hartzetik onura gehien jasotzen dutenak.</p>
<b>2- Jolasaldiak kontzentrazioa areagotzen du</b>	<p>Olga Jarrett doktorea, Georgiako Estatuko Unibertsitateko Haur Hezkuntzako Departamentuko lankideekin, aisialdirik gabeko politika zuen hiriko eskola-barruti batekin harremanetan jarri zen. Baimena lortu zuten laugarren mailako bi klasek astean behin aisialdia izan zezaten, hurrek jolas-ordua eduki zuten egunetan eta atsedenik gabeko egunetan izan zuten portaera ikusi ahal izateko. Emaitzek erakutsi zuten 43 ikasleak gehiago kontzentratzen zirela beren zereginetan, eta ez zirela hain urduri egoten jolas-ordua zuten egunetan. Haurren % 60k, arreta-defizientzia zuten bost ikasle barne, lan gehiago egiten zuten edota ez ziren hain urduri egoten jolasaldia eduki zuten egunetan.</p>
<b>3- Argi naturalak ongizatea hobetzen du</b>	<p>Eguzki-argiak guruin pineala estimulatzen du, gure erloju biologikoa erregulatzen laguntzen duen garunaren zatia. Funtsezkoa da immunitate-sistemarentzat, eta, besterik gabe, hobeto sentiarazten gaitu. Kanpoko argiak ere D bitaminaren sintesia eragiten du, eta, hainbat ikerketak erakutsi dutenez, horrek ikaskuntza akademikoa eta produktibitatea areagotzen ditu.</p>
<b>4- Jolasaldiak estresa murrizten du</b>	<p>Erresuma Batuko Haurren Hezkuntzarako Elkarte Nazionalak estresa garapenaren ikuspegitik murrizteko bitarteko egoki gisa ikusten du egituratu gabeko joko fisikoa, onura oso baliotsua dela esan dezakegu, estresak ikaskuntzan eta osasunean eragin negatiboa duela kontuan hartuta. Haur askorentzat, bereziki “hiperaktibotzat” hartzen direnentzat, aisialdia energia modu osasungarri eta egokian gastatzeko aukera bat da.</p>

	<p>Kanpoan, hurrek ikasgelan onartezintzat jotzen diren jokabideak izan ditzakete (zaratak, zalapartak, etab.). Jolas-ordua egituraren eta itxaropenen atsedena denez, hurrek beren munduaren agintea hartzeko aukera dute, eta hori ez da oso ohikoa beren bizitzetan.</p>
<p><b>5- Jolasaldiak gizarte-trebetasunak garatzen ditu</b></p>	<p>Jolasaldia hurrek benetan sozializatzeko eta komunikatzeko aukera duten eguneko une bakarra izan daiteke. Orokorrean, hurrek ez dute parte hartzen edo askoz ere gutxiago parte hartzen dute aurreko belaunaldietako auzo-jolasetan, eta, beraz, eskola-eguna amaitutakoan, aukera gutxiago egon daitezke garapen sozial naturala eta egituratu gabea garatzeko. Azken finean, klasean ez ditugu hurrak sozializatzera animatzen, baizik eta isilik egotea eta formaltasunez aritzea espero da haiengandik. Hare eta gehiago, zeinbat eskoletan hurrek bazkal-orduetan elkarrekin hitz egitea eragotzi egiten dute.</p> <p>Nola espero daiteke sozializatzeko eta komunikatzeko hain aukera gutxi dituzten hurrek elkarrekin harmonian bizitzea eta lan egitea helduak direnean? Noiz eta non ikasiko dute egiten?</p>
<p><b>6- Ariketa fisikoa osasungarria da</b></p>	<p>Haur askok obesitatea dute, baina pisu osasungarria dutenek ere etekina ateratzen diote jarduera fisikoari, eta, hain zuzen, osasun ezin hobea izateko beharrezkoa da jarduera fisikoa. Aire librea da lekuri onena hurrek kaloriak erre ditzaten, sortzen ari diren trebetasun fisikoak egin ditzaten eta mugimenduaren plazer hutsa senti dezaten.</p> <p>Ikerketek erakutsi dute eskolan fisikoki aktiboak diren hurrek etxean ere fisikoki aktiboak izateko aukera gehiago dituztela, eta eskola-egunean fisikoki aktiboak izateko aukerarik ez duten hurrek, orokorrean, eskolaz kanpoko orduetan ez dutela aukera hori konpentsatzen.</p>
<p><b>7- Jarduera fisikoak garuna elikatzen du</b></p>	<p>Garunari buruzko ikerketek egindako aurrerapenei esker, orain badakigu jarduera fisikoan zehar garunaren atal gehienak aktibatu egiten direla, sedentarisismoan baino askoz gehiago. Mugimenduak garuneko odol-hodien ahalmena handitzen du. Horrek oxigeno, ur eta glukosa hornidura bizkortzen du, garunaren errendimendua optimizatuz. Gainera, ikerketa askok frogatu dute fisikoki aktiboak diren ikasleek errendimendu akademikoa hobetzen dutela, azterketetan emaitza hobeak lortzen dituztela eta eskolarekiko jarrera hobea erakusten dutela.</p>

### 2.3.- Jolasa

“Jolas” hitzik garrantzitsuenetarikoa da haurren artean, izan ere, beraiena izango balitz bezala sentitzen dute. Hitz hori burura etortzen zaigunean, haurrekin zuzenean erlazionatzen dugu, oso gutxitan erlazionatzen dugu helduekin. Haurraren funtsezko jarduera jolasa dela esan dezakegu, eta, Marinen (2009) arabera:

Jolastea da haurtzaroko jarduera nagusia, eta haurrek begiratzeko, ukitzeko, kuxkuxeatzeko, esperimentatzeko, asmatzeko, irudikatzeko, ikasteko, adierazteko, komunikatzeko, sortzeko, amesteko... duten beharrari erantzuten dio. Haurtzarotik inguratzen gaituen mundua deskubritzera, esploratzera, menderatzera eta maitatzera bultzatzen gaituen bultzada primarioa da, gorputzaren, adimenaren, afektibitatearen, sormenaren eta soziabilitatearen hazkunde osasuntsu eta harmoniatsua ahalbidetuz. (234. or.)

Ikastea ez da aspertzearen esanahia, eta are gutxiago haurrentzat. Hala, Larrazek (1994, 3. or.) honako hau azpimarratzen du: “Jolasean haurra nolabaiteko plazerrarekin hezten da”, eta hori esparru guztietan aprobeitza dezakegu. Plazerak berriro jolastu nahi izatea eragiten duelako, eta zeharka nolabait hezten ari delako. Motibazioa funtsezko alderdia da bizitzako alderdi guztietan, baina hezkuntzan are garrantzitsuagoa da. Jolasak motibatu egiten du eta jolastuz ikasi egiten da. Zenbait espaziok asko laguntzen dute jokoak ikaskuntza ekar dezan; hala, Cols eta Fernándezek (2016) adierazten dute gero eta gehiago hurbiltzen ari garela espazio hori naturarekin erlazionatzen, non jolasa ikaskuntzaren sinonimo bilakatzen den.

Huizingaren arabera (1955), jolasa jarduera aske eta borondatezkoa da, denbora-muga eta muga espazial batzuen barruan garatzen dena, plazerra eta asetasuna lortzeko asmoz, eta ezarritako arauen arabera zuzentzen dena. Autore honen ustez, jolasa kulturaren eta gizartearen aurretiko lehen mailako jarduera da.

Jolastaren beste definizio garrantzitsu batzuk Sutton-Smithek (1997) proposatutakoak dira. Suttonek (1997) honela definitzen du: jarduera boluntarioa, irudimena ezaugarri nagusi gisa duena eta momentu batez errealitateetik urruntzen gaituena. Gainera, helburu zalantzagarrria eta arauen arabera zuzentzen dela baieztatzen du. Bestalde, Salen eta Zimmermanek (2004) jarduera autonomo eta autoeduki gisa definitzen dute jokoak, eguneroko

bizitzatik bereizitako ingurune batean egiten dena eta fikziozko mundu baten esplorazioa eskatzen duena.

Martínez-ek (1998), Bonnemaision, V. eta Trigueros, C.-ek (2005) aipatua, jokoaren hiru teoria edo interpretazio daudela dio:

- Garapenak jokia baldintzatzen du (Piaget): jolasa dagoeneko finkatuta dauden gaitasunak adierazteko modu gisa ulertzen du.

- Jokoak garapena eta hezkuntza baldintzatzen ditu: teoria horien arabera, jokoak errazten du heldutasunik gabeko eskuratzeetatik behin betiko eskuratzeetara igarotzea. Adibide bat Vigotskyn aurkitu dugu.

- Formulazio ekologikoa: ingurunea funtsezkotzat jotzen du pertsonen portaeran eta garapenean, eta portaera parte hartzen den jardueretan islatzen da. Ikuspegi honen gakoak haurraren kontzientzian errealitatearen pertzepzioa nola sortzen den eta nola aldatzen den eta horrek ingurunearekin duen interakzioa adierazten du.

### 2.3.1.- Jolas askea eta gidatutako jolasa

Huizingaren ustez (1938), jolasa eguneroko errealitatetik bereizitako eremu batean garatzen den jardura libre da. Egilearen arabera, jolasa borondatezko jardura bat da, espazio eta denbora mugatu batean garatzen dena eta funtzio erabilgarririk ez duten arauen arabera arautzen dena. Piagetentzat (1962), jolasa haurren garapen kognitibo eta sozialean funtzio bat betetzen duen gidatutako jardura bat da. Egilearen arabera, jolasak hezkuntza funtzioa du, eta, horri esker, haurrak esperientzia eta ezagutza berriak barnera ditzake. Bestalde, Vygotskyk (1978) uste zuen jolasa testuinguru sozial batean garatzen den jardura bat dela, eta haurrari besteekin elkarreraginez ikasteko aukera ematen diola. Egilearen arabera, jolasa haurrari trebetasun sozialak eta kognitiboak garatzeko aukera ematen dion gidatutako jardura da.

Ikuspegi gaurkotuagoan, Geek (2007) joko “askeagoak” eta “zuzenduagoak” bereizten ditu. Egilearen arabera, jokorik askeenetan jokalaria askatasun handiagoa du mundu birtuala esploratzeko eta erabakiak hartzeko; jokorik zuzenduenetan, berriz, jokalaria aurretik ezarritako gidoi edo bilbe bat jarraitzen du. Azkenik, Flanaganek (2009) “esplorazio” jokoan eta “helburu” jokoan arteko bereizketa proposatzen du. Egilearen arabera, esplorazio

jokoetan jokalaria mundu birtual batean esploratzeko eta esperimintatzeko askatasuna du, eta helburu jokoetan, berriz, jokalaria helburu espezifikoak lortu behar ditu.

Laburbilduz, joko libreak eta joko gidatuak bereiz ditzakegu, jokalaria mundu birtuala esploratzeko eta erabakiak hartzeko askatasun handiagoa edo txikiagoa duen eta jokoak funtzio hezitzailea duen edo ez kontuan hartuta. Hala ere, garrantzitsua da kontuan hartzea kategoria horiek ez direla elkarren baztertzaileak, eta joko batek bietako elementuak izan ditzakeela (Flanagan, 2009).

### 2.3.2.- Jolasaren funtzioak

Jolasak funtzioa desberdin asko ditu. Jolasa denbora-pasarako modu bat bezala ikus daiteke, baina honen balioa hortik haratago doa. Atal honetan, jokoaren funtzio nagusietako batzuk aztertuko dira.

Lehenik eta behin, jolasek irakasteko gaitasuna dute. Jolas hezitzaileak dira funtzio horren adibide garbia. Joko hauek edozein gai irakasteko diseinatu daitezke, matematikatik hasi eta historiaraino, zientzietatik hasi eta hizkuntzetaraino. Jolas hezitzaileek ikaskuntza-esperientzia ludiko eta erakargarria eskaintzen dute, liburu bat irakurtzea edo hitzaldi bat entzutea baino askoz eraginkorragoa izan daitekeena. Jolas hezigarrietan, jokalariek jolasten duten bitartean ikas dezakete, beren kabuz esperimintatuz eta esploratuz. Gainera, hezkuntza-jolasak adin eta trebetasun-maila desberdinetara egokitu daitezke, eta horrek aukera zabala ematen die pertsonari (Gee, 2007).

Bigarrenik, jolasak motibatuzeko gaitasuna du. Jokoak erronka egiteko diseinatu dira, eta jokalaria saritzeko beren lorpenengatik. Sari hori puntu, maila, objektu birtual edo, besterik gabe, lorpen pertsonalaren sententzia izan daiteke. Jokoen erronkak gaitzera, trebetasunak hobetzerak eta helburuak lortzen saiatzerak motiba ditzakete jokalaria. Hori bereziki baliagarria izan daiteke hezkuntzaren esparruan, non jolasek ikasleak ikastera eta errendimendu akademiko hobetzerak motiba baititzakete (Prensky, 2001).

Hirugarrenik, jolasek ikaskuntza susta dezakete. Jokoak berariazko trebetasunak irakasteko diseinatu daitezke, hala nola arazoak konpontzeko, erabakiak hartzeko, sormenerako eta lankidetzarako. Jokoen ikaskuntza-giro seguru eta kontrolatua eskain dezakete, non jokalariek esperimintatu eta trebetasun berriak praktikatu ditzaketen porrotaren beldurrik gabe. Gainera, jokoen ikaskuntza-giro pertsonalizatua eskain dezakete, jokalaria bakoitzaren beharretara eta trebetasunetara egokitua (Squire, 2011).

Laugarrenik, jolasak elkarrekintza soziala susta dezakete. Jokoak bakarka jokatzeko diseinatu daitezke, baina joko asko taldean jokatzeko diseinatuta daude. Jokalari anitzeko jokoek elkarlana, komunikazioa, erabakiak taldean hartzea eta gatazkak konpontzea susta dezakete. (Bailenson & Yee, 2008).

Azkenik, jolasa tresna eraginkorra izan daiteke Lehen Hezkuntzako ikasleen osasun fisikoa eta mentala hobetzeko. Liebermanen arabera (2001), jolasak tresna terapeutiko gisa erabil daitezke nahasmenduak tratatzeko, hala nola ADHN eta haurren antsietatea. Gainera, Granic, Lobel eta Engels-ek (2014) nabarmendu dutenez, kirol eta fitness jokoak eskolan jokatzeko egokitu daitezke, eta hurrei trebetasun motorrak garatzen eta aktibo mantentzen lagun diezaiekete, eta horrek haien osasun fisikoa hobetzen laguntzen du.

#### 2.4.- Ikasleak eta natura

Freirek (2011) dio naturarekiko kontaktua oso garrantzitsua dela gizakientzat eta, bereziki, txikientzat, ematen dituen onura ugarietarako. Naturaz inguratuta hazten diren haurrak beren buruarekiko eta besteekin sentimendu positiboak bereizten dituzte. Kontaktu horri esker, gure egungo gizarteko haur askok jasaten duten estresa baretu dezakete. Naturarekiko dugun lotura bizitza osoan zehar eraikitzen da, baina Freireren arabera (2011), lehen haurtzarora (0-7 urte), haurtzarora (7-11 urte) eta nerabezaro goiztiarra (12-15 urte) dira ingurune naturalarekin lotura handiena duten etapak erabakigarriak.

Logika erabiliz eta irakaskuntzaren munduari buruzko ezagutza handirik izan gabe, landa-inguruneetan kokatutako ikastetxeak eremu naturalez inguratuta egon beharko direla pentsa dezakegu. Baina gehienetan hori ez da ideia zuzena, kirolak jolastokiak baldintzatzen baititu, baita ingurune landatarrenetan ere. Colsek eta Fernándezek (2016) ziurtatzen duten bezala, “material horiek ingurune naturaletan ere aurki ditzakegu, non jostailuek agertoki osoa estaltzen duten”. ( 4. or.).

Freirek (2011) dio oso garrantzitsua dela haurren autonomia landu eta sustatzea, naturan askatasuna utziz. Gaur egun gizartea oso babeslea da hurrekin, batez ere gurasoak. Egileak berak uste du kalte egin diezaiekeen guztitik babestu nahi ditugula, baina benetan egiten duguna mugak jartzea da, ikasteko eta hezteko oso baliagarriak diren jarduerak horietan mugak jarri. Ingurune natural batean hazteko aukera eman behar diegu, modu integralean eta esplorazioaren bidez. Horrek ez du esan nahi ingurune natural honetan egiten dutenari arreta

jarri behar ez diogunik, baina bai beste mota bateko zaintza bat, zaintza pasiboa hain zuzen ere.

#### 2.4.1.- Naturak ikasleengan sortzen dituen onurak

Esan bezala, natura eskolako patioan funtsezko elementu bat da, ikasleentzat hainbat onura dituelako. Jarraian, zenbait egilek teoria hori ikerketetan oinarrituta egiaztatzen dutela ikusi dezakegu.

Wellsek (2000) ikerketa baten bidez, baieztatu dezake patio berdeak zituzten eskoletara joaten ziren hurrek landaretzarik gabeko eskoletara joaten ziren hurrek baino trebetasun kognitibo hobekak zituztela. Gainera, hurrek ere arreta eta kontzentrazio handiagoa erakutsi zuten, giro naturalean jolastu ondoren. Bestalde, Dadvand, Nieuwenhuijsen, Esnaola, Forns, Basagaña, Alvarez-Pedrerol, Rivas, Lopez-Vicente, Pascual, Su, Jerret, Querol eta Sunyerrek (2015) espazio berdeek ikasleen errendimendu kognitiboan duten eragina aztertu zuten, eta aurkitu zuten landaretza handiagoko eskoletara joaten ziren hurrek errendimendu kognitibo handiagoa zutela landaretza gutxiagoko eskoletara joaten ziren hurrek baino.

Taylor, Kuo eta Sullivanek (2001), bestalde, aurkitu zuten ingurune naturaletan jolasten ziren hurrek arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmenduaren sintomak murriztu zituztela (ADHN), ingurune ez-naturaletan jolasten ziren hurrekin alderatuta. Norabide horretan, Taylorrek eta Kuok (2009) baieztatu zuten ADHN duten hurrek, zeregin bat egin aurretik parke batean ibilaldi bat ematen zutenek, beren kontzentrazio-gaitasuna hobetu zutela hiri eremu batean ibili ziren hurrekin alderatuta.

Jarraian, naturak ikaskuntza prozesua nola hobetu dezakeen azaltzen duten ebidentzia batzuk aztertuko ditugu. Hauek dira naturarekiko kontaktuak ikaskuntza prozesuan dituen ondorio onuragarrietako batzuk (Guillen, 2019):

<b>1- Arreta hobetzen du</b>	Arreta faktore kritikoa da ikaskuntzan, baina ikasle askok arreta gabeziak jasaten dituzte ikasgelan, adibidez, distrakzioengatik, buruko nekeagatik edo nahasmendu espezifikoenengatik, ADHNaren kasuan bezala. Berman et al., 2009an frogatu zuten ingurune natural batetik paseatzea nahikoa dela neke mentalarekin lotutako garuneko zirkuituak energiaz kargatzeko eta arreta exekutiboak esku hartzen duen zereginetan jarduna hobetzeko. Garrantzitsua da Li eta Sullivanen ikerketa (2016) gehitzea.
------------------------------	--



	<p>Bertan egiaztatu zuten, kontzentrazioari eta autokontrolari lotutako arreta sareak hobera egiten duela ikasleek espazio berdeetara ematen duten leiho irekiko geletan lan akademikoak egiten dituztenean.</p>
<p><b>2- Estres maila murrizten du</b></p>	<p>Ikerketa desberdinen arabera, ingurune naturalek eragin positiboa izan dezakete estresaren fisiologian, bai helduaroan eta bai haurtzaroan ere. Adibidez, Dettweiler et al., 2017an ikerketa bat egin zuten Lehen Hezkuntzako ikasleekin. Ikasle hauek, astean behin eta ikasturte osoan zehar, naturara gerturatzen ziren ikastera. Ikerketa honen bidez, kortisoleko hormona katabolikoaren mailak egunero murrizten zirela erakutsi zuten, eskolako ingurune itxian ez bezala. Azken horiek kortisol maila egonkorrak izan zituzten, nahiz eta haurtzaroan goizeko kortisol maximotik egunez murrizteko joera naturala izaten den.</p> <p>Jo et al., 2019an egiaztatu zuten ingurune naturaletara bistak edukitzea onura fisiologikoak izan ditzakeela erlaxazioan eta estres desegokian. Gainera, Chawla et al.-ek 2014ean baieztatu zuten espazio berdeak dituzten patioak, edozein ikasgaitan eta hezkuntza-etapatan erabil daitezkeenak, oso egokiak direla estresari aurre egiteko eta erresilientzia lantzeko.</p>
<p><b>3- Autokontrola hobetzen du</b></p>	<p>Haurtzaroan zehar naturarekiko izaten ditugun kontaktuek, eragin positibo zuzena dute haurren autodiziplinan. 7 eta 12 urte bitarteko neska-mutilek parte hartu zuten azterlan batean (Faber Taylor et al., 2002) egiaztatu zen berdegunetatik gertu bizi ziren ikasleek hobeto gauzatzen zituztela kontzentrazioa, bulkadak inhibitzea eta saria atzeratzea eskatzen zuten zereginak.</p> <p>Berrikuspen batek iradokitzen du (Weeland et al., 2019), gaiari buruzko ikerketa zehatzak falta diren arren, natura etorkizun handiko tresna izan daitekeela haurtzaroan autoerregulazioa lantzeko. Lehen esan dudana bezala, horrek guztiak garrantzi berezia du ADHDn duten haurren kasuan, nahasmendu horrekin batera defizit zehatzak gauzatzen direlako garunaren funtzio exekutiboan garapenean. Azken inean, badirudi naturak gure garuna energiaz betetzen duela eta horrek autokontrollean eragina handia duela, onura handiak ekarriz.</p>
<p><b>4- Motibazio eta konpromezu aktiboa areagotzen ditu</b></p>	<p>Irakasle askok beldurra diote ikasgelatik kanpora mugitzeari, haien iritziz arriskuan jartzen duete ondorengo klaseetan ikasleek izango duten kontzentrazio maila, baina badirudi ez lukeela honela izan beharrik. Ikasleen motibazio mailak gora egiten du eta</p>

	<p>ingurune naturaletako ikaskuntzarekin konprometituagoak egoten dira. Gainera, horrek hurrengo zereginetan, ikasgelako testuinguru klasikoan, parte-hartze hobea izatea dakar (Kuo et al., 2018). Badirudi naturak eragin positiboa duela gogo-aldartean, eta horrek motibazio, gozamen eta konpromezu handiagoa eragiten die ikasleei ingurune naturalean. Adibidez, kanpoko inguruneetan garatutako unitate didaktikoak gauzatu dituzten Erresuma Batuko hiru eskolatan, gehienak ingurune naturalean burutu direnak, bai ikasleek eta bai irakasleek hobekuntzak identifikatu dituzte ikaskuntzarekiko, kontzentrazioarekiko eta portaerarekiko konpromisoan, ongizate orokor handiagoarekin batera.</p>
<p><b>5- Jarduera fisikoa sustatzen du</b></p>	<p>Haurtzaroko jarduera fisikoak eragin positiboa du garunean, eta eragin berezia du funtzio exekutiboetan. Gaur egungo jokabide sedentarioei aurre egiteak, bihotz- eta arnas-aparatuan eta orokorrena osasunean ekatzen dituen onurak ahaztu gabe. Ikasgelaren testuinguruan, minutu gutxi batzuetako geldialdi aktiboak nahikoak dira ondorengo zeregin akademikoetan kontzentrazioa hobetzeko (Hillman et al., 2019). Eta zer gertatzen da ariketa kanpoan egiten dugunean? Badirudi kanpoan ikasteko espazioak, oro har, eta berdeguneak, bereziki, jarduera fisikoaren katalizatzaile handiak izan daitezkeela, bereziki ingurune horiek gure osasunerako garrantzitsuak direla onartzen dugunean. Berdeguneek jarduera fisikoa erraztu eta sustatzen dute, hala nola, oinez, korrika, bizikletaz, etab. Eta hori guztia estresari aurre egiteko modu bikaina da. Izan ere, baso eremu batetik 15 minutuko ibilaldi soil bat eginez gero, kortisol kontzentrazioa askoz gehiago murrizten da hiri ingurune batean gertatzen denean baino (Kobayashi et al., 2019).</p>
<p><b>6- Ikaskuntza testuingurua eta gizarte harremanak hobetzen ditu</b></p>	<p>Badakigu ingurune fisikoak garrantzi handia duela ikaskuntzan, baina baita giro emozionalak ere. Adibidez, Haur Hezkuntzako etapan, egiaztatu da haurrei natura betean hezkuntza-esperientzia bat eskeintzea edo, are gehiago, elementu naturalekin kontaktuan egoteko aukera ematea, emozio-klima lasaiagoak, seguruagoak eta dibertigarriagoak sortzen dituela, ikaskideen arteko harremanak hobetuz eta ikaskuntza prozesua erraztuz (Nedovic eta Morrisey, 2013). Hori guztia bereziki onuragarria da ikasgela tradizionaletara egokitzea gehiago kostatzen zaien ikasle disruptiboentzat. Eskola-baratzearekin, lorezaintzako programekin edo ingurune naturaleko proiektuekin lotutako zereginak haur eta nerabe askoren autoestimua eta autokonfiantza hobetu dezakete.</p>
<p><b>7- Jolasa eta sormena errazten eta</b></p>	<p>Naturarekiko kontaktuak harreman onak eta lankidetzak sustatzen</p>

<p><b>sustatzen ditu</b></p>	<p>ditu, jolasa errazten duelako. Faktore hori kritikoa da ikaskuntzan, eta garapen fisikoa, kognitiboa eta sozioemozionala sustatzen ditu, batez ere haurtzaroan. Tamalez, askotan, erabilera mugatu egiten da, ikasleen estimulazioa kognitibo goiztiarra ustez bultzatzen duten tresnak erabiliz, honela, haurra testuingurutik kanpo dagoen ingurune bateko behatzaile pasibo huts bat bihurtuz. Gainera, ingurune naturalek (eta jolasak, jakina, simulaziokoak edo esploraziokoak) jakin-mina eta sormena pizten dituzte. Autore batzuen arabera, naturak pieza solte mordoa eskaintzen ditu (makilak, harriak, buztina, ura, etab.), hauek duten osagai ludikoaren bidez, objektuen esplorazio handiagoa, egoeren ikuspegi sortzaileagoa eta arazoak hobeto konpontzea sustatuko luketenak. Pieza solte askeen teoriak haurtzaroko garapenean dituen onurak berresten dituzten azterlan kuantitatiboak falta diren arren, argi dago egoera horien aurrean haurren jolasa sortzaileagoa, aktiboagoa eta sozialagoa bihurtzen dela, eta horrek eragin positiboa duela haur guztien garapen kognitibo, sozial eta fisikoan (Kuo et al., 2019).</p>
------------------------------	--

Izan ere, gizakiok naturarekin harremanetan ikasi dugu, gure DNAan dago, eta horretan jarraitu beharko genuke, hori izango baita natura ulertzeko eta elkar ulertzeko modurik onena. Azken finean, garrantzitsuena eta naturalena bizitzatik eta bizitzarako ikastea da (Guillén, 2019).

#### 2.4.2.- Naturarekin erlazioa duten patioen ezaugarriak

Naturarekin erlazioa duten patioek ezaugarri jakin batzuk izan behar dituzte ikasleentzat onuragarria izan daitezen. Jarraian, naturaz inguraturiko eskola patio batek eduki behar dituzten zenbait ezaugarri aurkezten ditut:

Zuhaitzak eta landaredia: Eskolako patioan zuhaitzak eta landaredia egoteak hainbat onura dakarzikie ikasleei. Kweon, Sullivan, eta Wileyren (1998) ikerketa baten arabera, eskolako patioan zuhaitzak eta landaredia egoteak airearen tenperatura murriztu dezake eremuan, zarata eta airearen kutsadura gutxitu, eta ikasleen gozamina eta gogobetetasuna areagotu. Gainera, zuhaitzek eta landaretzak itzala eta jolaserako eta erlaxatzeko espazio atsegin bat eman diezaiekete ikasleei.

Esploraziorako eta jolaserako espazioak: Ingurune naturala duten eskola patioek ikasleek esploratzeko eta jolasteko espazioak izan behar dituzte. Dymant-ek eta Bell-ek (2008) egindako ikerketa baten arabera, espazio naturalak, basoak eta belardiak, esaterako, dituzten eskola patioek aukera ematen dute ikasleak miaketa

jardueretan eta irudimenezko jokoetan parte har dezaten, eta horrek haien osasun fisikoa eta mentala hobetu ditzake.

Uraren ezaugarriak: Uraren ezaugarriak dituzten eskolako jolastokiek, urmaelak, errekek edo iturriak, dibertitzeko eta ikasteko iturri izan daitezke ikasleentzat. Wellsen ikerketa baten arabera (2000), eskolako jolastokian uraren ezaugarriak dituzten eskoletara joaten diren ikasleek zoriontsuago eta erlaxatuago sentitzen zirela adierazi zuten.

Eskolako lorategiak: Eskolako jolastokietan natura sustatzeko modu eraginkorretako bat, eskola lorategiak txertatzea izan daiteke, eta ikasleek nekazaritzari eta nutrizioari buruz ikasteko aukera bikaina ere eskeintzen du. Kuo eta Sullivanen (2001) ikerketa baten arabera, eskola lorategiak zituzten eskoletara joaten ziren ikasleek naturarekin lotuago zeudela eta zientziarekiko interes handiagoa zutela adierazi zuten.

## 2.5.- Ibai Ikastola

### 2.5.1.- Sarrera

Ibai ikastola Donostiako Ibaetako auzoan kokaturik dagoen ikastetxe publiko bat da. Zehatzago izanda, Aingeru zaindari 17 helbidean aurkitzen da iaz 50. urteurrena ospatu zuen ikastetxe honek (Ibai Ikastola, d.g.). Ikastetxeko eragin eremuak honako hauek dira; Antiguu, Ondarreta, Lugaritz, Benta Berri, Arriola, Berio, Lorea, Errotaburu eta Igara. Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntza bitarte eskeintzen dituzte haien zerbitzuak eta orokorrean bertako ikasleak Luberriko institutuan jarraitzen dituzte haien ikasketak. D ereduko ikastola da, hizkuntza nagusi moduan euskara erabiltzen du, gaztelera ikasgai bat delarik.

Ikastolako zuzendariak, Anabelek, elkarrizketan dioen bezala (ikus eranskina 9.3.), Ibai Ikastola 2 lerroko ikastetxea da, non guztira 348 ikasle dauden, 99 HHn eta LHn 249. Momentuz 2 lerroko ikastola izaten jarraitzen du, baina kontziente dira azken urteetan jaiotze tasak behera egin duela eta honela jarraituz gero etorkizunean aldaketak egon daitezkeela. Ikasleetaz gain, Anabelek elkarrizketan argitzen duen bezala guztira 43 langile daude, 40 irakasle eta 3 hezitzaile. 40 irakasle horietan, PTak, logopedak, aholkulariak, jangelako arduradunak eta zuzendaritzako langileak daude. Bestetik, ikastolarako lan egiten duten kanpoko agente batzuk daudela adierazten du ikastetxeko zuzendariak. Berritzegunetik hezkuntza premia bereziak (HPB) dituzten ikasleen balorazioa edo jarraipena egitera joaten

dira, adibidez fisioterapeuta edo terapeuta okupazionala, ikasleen beharren arabera. Espezialista hauek ez dira ikastolako 43 langile horien barnean sartzen.

## 2.5.2- Espazioa

Anabelek elkarrizketan azaldu duen bezala (ikus eranskina 9.3.), Ibai Ikastola hasiera batean pribatua zen eta gero publikatu zenean Eusko Jaurlaritzaren eskuetara pasa zen. Ibai Ikastola duela 50 urte baina gehiago sortu zen eta klaseak UBI arte emateko eraiki zen, honenbestez ez da LH arte klaseak emateko sortu zen eraikuntza bat, handiagoa da.

Patioei dagokionez, sarreran jolastoki bat aurki dezakegu, LH 1. mailako eta 2. mailako ikasleentzat dena (ikus eranskina 9.4.1.). Bertan, parke bat dago eta eguraldi txarra egiten duenean HH 2 eta 3. mailako ikasleek erabitzen dutena. 1. solairuan patio desberdin asko ditugu, alde batetik HH 2. mailako ikasleen gelan zuzenean saskibaloiko zelai batera ateratzeko aukera dute, haien patioa dena eta sare baten bitartez beste zelaia banatzen duena (ikus eranskina 9.4.2.). HHko 3. mailako ikasleek parke bat dute (ikus eranskina 9.4.3.) baino Anabelek komentatu zidan bezala batzuetan patiora lehenago ateratzen dira eta ikusi dudanaren arabera momentu horretan libre dagoen edozein espazioan egon daitezke. HHko 4. mailako ikasleek, estalitako gune bat dute patio gisa (ikus eranskina 9.4.4.) eta HHko 5. mailako ikasleek, HHko 2. mailako espazioaren ondoan dagoen saskibaloiko beste zelaia dute (ikus eranskina 9.4.5.). 1. solairuarekin amaitzeko, 2. zikloko ikasleek futbol zelai bat partekatzen dute, alde bat 3. mailakoentzat eta beste erdia 4. mailakoentzat. Gainera, parke bat ere dute 2. zikloko ikasleek (ikus eranskina 9.4.6.). Azkenik, 2. solairuan, beste futbol zelai bat topa dezakegu (ikus eranskina 9.4.7.), 3. ziklokoek partekatzen dutena, erdia 5. mailakoentzat eta beste erdia 6. mailako ikasleentzat.

Patioaren ezaugarrietaz gain, Ibai Ikastolak jolas-orduetarako jarraitzen duen sistema berezi bat ere azaldu behar dut. Astelehen, Asteazken eta Ostiraletan ikasleek ezin dute baloia erabili jolas-orduetan. Asteartean, baloia erabili dezakete futbolera jolasteko eta Ostegunetan baloia erabiltzeko aukera dute baina futbola ez den jarduera batean aritzeko.

Ikerketa hau Donostian kokatzen den Ibai Ikastolan gauzatu da eta bertan Lehen Hezkuntzako 2. zikloko 3. mailako ikasleek hartu dute parte. Lehenik eta behin, 3. mailako ikasleek jolas-orduan izan dituzten jarrerak behatu ditut, bai 3.A eta 3.B mailako ikasleen jarrerak, ikasle hauek espazio berdina partekatzen dutelako. Horretaz gain, 3.B mailako ikasleek jolas-ordurako eskeintzen zaien espazioaren inguruan eta ikastetxeak jolas-orduak

gestionatzeko moduaren arabera duten iritzia jaso dut elkarrizketa baten bidez. 3.B mailako ikasleak hautatu ditut elkarrizketak egiteko klase honekin egon naizeko II. praktikuma gauzatzen.

### 3.- HELBURUAK

#### HELBURU OROKORRA

Ibai Ikastolako patioaren eta jolas-orduan zehar gertatzen denaren analisi zehatz bat egitea da lan honen helburu nagusia.

#### AZPIHELBURUAK

1. Patioak ikasleentzako ahalik eta onuragarrienak izateko beharrezkoak diren ezaugarriak identifikatzea.
2. Jolas-orduen garrantzia azpimarratzea eta honek ikasleengan dituen onurak azaleratzea.
3. Ingurune naturalak ikasleengan dituen onurak azaltzea.
4. Ikasleek patio eta jolas-orduen inguruan duten iritzia jasotzea.
5. Marko teorikoa eta Ibai Ikastolako egoera kontuan hartuta hobekuntza proposamenak adieraztea.

### 4.- METODOLOGIA

#### 4.1.- Lagina

Ibai Ikastolako 3.B mailako ikasleek parte hartu dute elkarrizketetan, 20 ikasle izan dira guztira, 9 urte dituzten 10 mutil eta 10 neska hain zuzen ere. Bai ikasleek, zein tutoreak eta ikastetxeko zuzendariak ikerketaren inguruko informazioa jaso zuten eta haien onespena eman ziguten proiektua gauzatu ahal izateko.

#### 4.2.- Instrumentua

##### 4.2.1.- Ikasleekin elkarrizketak

3.B mailako ikasle bakoitzarekin elkarrizketa (ikus eranskina 9.1.) bat egiten dut. Galdera guztiak Ibai Ikastolako patioaren eta jolas-orduekin erlazonaturik daude eta ikasleek hauen inguruan duten iritzia jasotzea da helburua. Guztira 6 galdera dira eta

hauetatik bat itxia da eta besteak irekiak dira. Elkarrizketako galdera guztiak kualitatiboak dira, azken finean ikasleen iritzia jasotzea da helburua. Galdetegia honako hau da:

- Kirola egitea gustatzen zaizu? eta futbolera jolastea?
- Zer iritzi dezu instalakuntzen inguruan?
- Patioan zer gustatzen zaizu egitea?
- Zein da zure egunik gogokoena? Zergatik?
- Euria egiten duenean gelara etortzen zarete, zer iruditzen zaizu?
- Zerbait botatzen dezu faltan?

#### 4.2.2.- Behaketa

Ikasleek egun desberdinetan jolas-orduan kanpora ateratzen diren edo ez, kanpora ateratzen diren ikasleen artean zein espazio erabiltzen duten eta zein jarduera egiten dituzten behatu dut. Honenbestez, emaitzak kuantifikatzeko, erregistro orri bat erabili dut (ikus eranskina 9.2.). Honako hau da erregistro orria:

NON?	Zenbat ikasle?
HIPI gela joan dira	
Patiora atera dira	

ZER EGIN DUTE? (patiora atera direnak)	Zenbat ikasle?
Jarduera fisikoa egin dute	
Fisikoak ez diren jarduerak	
Eserita egon dira hizketan	

PATIOKO ZEIN ESPAZIOA OKUPATU DUTE?	Zenbat ikasle?
Espazioa zentrala okupatu dute	

Alboko espazioak okupatu dituzte	
----------------------------------	--

Gehigarria:
-------------

#### 4.3.- Prozedimendua

##### 4.3.1.- Ikasleekin elkarrizketa

Elkarrizketa gauzatzeko ikasleekin banan banan biltzeko aukera izan nuen, honela haiek duten iritzia era zehatzagoan jasotzeko aukera izango nuela pentsatzen nuen. Gainera, hauek ikasgelatik kanpo egin nituen, ikasleak lasaiago sentitzeko ideiarekin. Ikasleak, klase orduan, tutorearekin zeuden bitartean, abizenen zerrendaren arabera kanpora etorri ziren nirekin elkarrizketa gauzatzera.

##### 4.2.2.- Behaketa

7 egun desberdinez egin nituen behaketak, baloirik gabeko 3 egun eta baloia erabiltzeko aukera zuten 4 egunetan; 2 astearte eta 2 ostegun. Horietatik batzuk ez ziren baligarriak izan euria egun zuelako eta ikasleek ikasgelan geratu zirelako. Erregistro orriaren bitartez 4 egun desberdin kuantifikatu ditut, baloirik gabeko 2 egun eta baloiarekin ibiltzeko aukera izan zuten 2 egun; astearte bat eta ostegun bat. Ikasleak kanpora ateratzen diren edo HIPI gelan geratzen diren kuantifikatuko dut erregistro orriaren lehenengo atalean. Bigarren atalari dagokionez, ikasleek jarduera fisikoa gauzatzen duten, fisikoa ez den jardueraren bat gauzatzen duten edo era pasiboan hizketan aritzen diren kuantifikatuko dut. Hirugarren atalean, espazioa nola okupatu den kuantifikatuko dut, espazio zentrala erabili da edo ikasleek ez dute espazioa erabili? Azkenik, azalpenen bat emateko aukera izateko gune bat ipini dut sortu dudana erregistro orri honetan.




## 5.- EMAITZAK

### 5.1.- Ikasleekin elkarrizketa

#### 1. grafikoa

*Ikasleen kirol zaletasuna*



Ikasle guztiei gustatzen zaie kirola.

#### 2. grafikoa


*Ikasleen futbol zaletasuna*



Ikasleen %50-ari ez zaie futbola gustatzen eta beste %50-ari futbola gustatzen zaie.

### 3. grafikoa


*Ikasleek duten patioarekiko adostasuna*



Ikasleen %25-ari ez zaie gustatzen egokitu zaien patioa eta %75-ak gustuko du.

### 4. grafikoa

*Ikasleen gustuko jarduerak*




10 ikasleri futbolera jolastea gustatzen zaie, 5 ikasleri HIFI gelan marratzea eta jolastea gustatzen zaie, 2 ikasleri motorrak ez diren jolasetan aritzea gustatzen zaie, beste 2 ikasleri

motorrak diren jolasetan aritzea gustatzen zaie eta ikasle bati barandilan irristatzea gustatzen zaie.

### 5. grafikoa

*Ikasleen egunik gogokoena*




Jolas-ordurako sistema kontuan hartuta, 10 ikasleri asteartea gustatzen zaie gehien, 5 ikaslerentzat osteguna da egunik gogokoena eta beste 5 ikasleri ez zaie inporta zein egun den.

### 6. grafikoa

*Ikasleen iritzia egun euritsuetan*

**Zer iruditzen zaie ikasleei euria egiten duenean klasean geratzea?**




%25-ak nahiagoko luke beste alternatibaren bat bilatu eta beste %75-ari ondo iruditzen zaio euria egiten duenean klasean geratzea.

7. grafikoa

*Hobekuntza proposamenak dituzten ikasleak*

### **Ikasleek hobekuntza porposamenak dituzte?**




Ikasleen %90-ak hobekuntza proposamenak dituzte eta %10-ak ez dituzte hobekuntza porposamenik.

8. grafikoa

*Ikasleen hobekuntza proposamenak*

## Zeintzuk dira proposatzen dituzten hobekuntza proposamenak?



Hobekuntza proposamenak dituzten ikasleen artean, %66,7-ak naturarekin dute erlazioa eta %33,3-ak jolas edo kirol azpiegiturak eskatu dituzte.


### 5.2.- Behaketak

#### 5.2.1.- Baloirik gabeko eguna 1

#### 9. grafikoa

*Ikasleen eremua (Baloirik gabeko eguna 1)*

### Ikasleak non egon dira jolas-orduan zehar? (Baloirik gabeko eguna 1).




%70-a patiora atera da eta %30-a HIPI gelara joan da.

10. grafikoa

*Ikasleen ekintzak (Baloirik gabeko eguna 1)*

**Patiora atera diren ikasleek zer egin dute? (Baloirik gabeko eguna 1).**




2 ikaslek jarduera fisikoa egin dute eta 12 ikasle eserita egon dira hizketan.

11. grafikoa

*Ikasleek patioan okupatzen duten espazioa (Baloirik gabeko eguna 1)*

**Ikasleek zein espazioa okupatu dute? (Baloirik gabeko eguna 1).**




Ikasleen %85,7-ak alboko espazioak okupatu dituzte eta %14,3-ak espazio zentrala okupatu dute.

### 5.2.2.- Asteartea

#### 12. grafikoa

*Ikasleen eremua (Asteartea)*

#### **Ikasleak non egon dira jolas-orduan zehar? (Asteartea).**




%80-a patioa atara da eta %20-a HIPI gelara joan da.

#### 13. grafikoa

*Ikasleen ekintzak (Asteartea)*

#### **Patioa atara diren ikasleek zer egin dute? (Asteartea).**




13 ikaslek jarduera fisikoa egin dute eta 3 ikaslek fisikoak ez diren jarduerak egin dituzte.

14. grafikoa

*Ikasleek patioan okupatzen duten espazioa (Asteartea)*

#### **Ikasleek zein espazioa okupatu dute? (Asteartea).**



Ikasleen %18,8-ak alboko espazioak okupatu dituzte eta %81,3-ak espazio zentrala okupatu dute.


5.2.3.- Baloirik gabeko eguna 2

15. grafikoa



*Ikasleen eremua (Baloirik gabeko eguna 2)*

**Ikasleak non egon dira jolas-orduan zehar? (Baloirik gabeko eguna 2).**




%65-a patiora atera da eta %35-a HIPI gelara joan da.

16. grafikoa

*Ikasleen ekintzak (Baloirik gabeko eguna 2)*

**Patiara atera diren ikasleek zer egin dute? (Baloirik gabeko eguna 2).**




4 ikaslek jarduera fisikoa egin dute eta 9 ikasle eserita egon dira hizketan.

17. grafikoa

*Ikasleek patioan okupatzen duten espazioa (Baloirik gabeko eguna 2)*

**Ikasleek zein espazioa okupatu dute? (Baloirik gabeko eguna 2).**




Ikasleen %69,2-ak alboko espazioak okupatu dituzte eta %30,8-ak espazio zentrala okupatu dute.

5.2.4.- Osteguna

18. grafikoa

*Ikasleen eremua (Osteguna)*

**Ikasleak non egon dira jolas-orduan zehar? (Osteguna).**




%95-a patiora atera da eta %5-a HIPI gelara joan da.

19. grafikoa

*Ikasleen ekintzak (Osteguna)*

**Patiora atera diren ikasleek zer egin dute? (Osteguna).**




17 ikaslek jarduera fisikoa egin dute eta 2 ikasle eserita egon dira hizketan.

20. grafikoa

*Ikasleek patioan okupatzen duten espazioa (Osteguna)*

**Ikasleek zein espazioa okupatu dute? (Osteguna).**



Ikasleen %10,5-ak alboko espazioak okupatu dituzte eta %89,5-ak espazio zentrala okupatu dute.

## 6.- ONDORIOAK

### 6.1.- Elkarrizketa

Futbola eta kirola gustuko duten ikasleen artean patroia oso antzekoa da; lehenik eta behin pozik daude patioarekin, horretaz gain jolas-orduan gehien gustatzen zaiena futbolera jolastea da eta ikastolan duten sistema kontuan hartuta asteartea da haien egunik gustokoena. Futbola gustuko ez duten ikasleetan 2 patroia nagusi bereiz ditzakegu. Erdia, hau da, 5 ikasle, ez daude gustora jolasaldirako egokitu zaien espazioarekin, argudioak futbolera oso bideratua dagoelako edo aukera oso gutxi daudelako izan dira. 5 horietatik 3 HIPI gelara joaten dira marraztera edo jolastera eta 2 ikasle ordea kanpoan aritzen dira. 5 ikasle horiek oso garrantzitsua den beste gauza bat dute amankomunean, osteguna da haien egunik gogokoena, honek kanpoan baloiarekin jolasteko aukera ematen die, futbola ez den zerbaitetara jolasteko. Geratzen diren 5 ikasleei ez zaie futbola gustatzen baina patioa aproposa iruditzen zaie. Honek azalpen garbi bat du, ez zaie inporta asteko zein egun den, ez zaie inporta jarduera fisikoa eta baloiarekin gauzatzen diren jolasak. 3 ikasleri HIPI gelan egotea gustatzen zaie eta honenbestez, astean zehar bertan egoten direnez, ez zaie inporta ez espazioa, ez bertan gauzatzen diren jarduerak zeintzuk diren. Beste 2 ikasleei kanpoan egotea gustatzen zaie baina oso espezifikoak diren gauzak egitea gustatzen zaie, non ez duten ez baloirik, ez espazio gehiegirik behar. “Hamaiketakoa jatea. Gero, neri gustatzen zaizkidan gauzetan pentsatzea eta barandilan irristatzea” eta “LH 4.mailako nire lehengusinarekin jolastea gustatzen zait”.

Ikasleen gehiengoa euria egiten duenean gelan geratzearekin pozik dago. Gainera, horietatik beste ikasle batek ondo iruditzen zaiola esan du baina zorua bustita dagoenean patioa jeistea gustatuko litzaiekela gehitu du. Gainontzeko ikasleetatik, 2 ikaslek esan dute HIPI gelara joatea gustatuko litzaiekela, bertan “deskonektatzeko” eta lasaiago aritzeko. Beste 3 ikasleek esan dute futbolera jolasteko espazio itxi bat gustatuko litzaiekela. Marko teorikoan ikusi dugun bezala, ikasleek haien munduaren agitea hartzeko aukera izan behar dute eta hori ikasgelatik kanpo egiten diren atsedenen bitartez ematen da.

Hobekuntza proposamenak ez dituzten ikasleei futbola gustatzen zaie. Bestetik, hobekuntza proposamenak adierazi dituzten ikasleen artean 2 talde nabarmendu ditut. Alde

batetik, jolas edo kirol azpiegiturak eskatu dituztenak, bertan porterientzako sareak, futbolerako belar artifizialak, kanastak eta parkeak sartuz. Bestetik, ikasleen gehiengoak, naturarekin erlazioa handitu nahi dute, gehiengoak belardia eskatu du. Horietatik, oso esanguratsuak iruditu zaizkiten bi esaldi adieraziko ditut; “Belardia eta parke bat jolasteko eta irakurtzeko. Horrela HIPI gelara ez joateko eta kanpora ateratzeko” eta “Hesiak kendu eta belardian jolastea, natura asko gustatzen zait eta”. Ikusi dezakegun bezala ikasleek naturarekin erlazioa handiagoa nahi dute eta marko teorikoan azaldu dugun bezala hau oso onuragarria da haientzako. Gogoan eduki behar dugu, patio berdeak dituzten eskoletara joaten diren haurrek landaretzarik gabeko eskoletara joaten diren haurrek baino trebetasun kognitibo hobekak dituztela (Wellsek, 2000).

## 6.2.- Behaketa

9.4.6. eranskinean ikus daiteken bezala 2. zikloko ikasleek patio gisa futbol zelai bat dute, erdia 3. mailakoentzat eta beste erdia 4. mailako ikasleentzat. Gainera, ondoan dagoen parke bat ere dute haientzako (ikus eranskina 9.4.6.). Ikusi daitekeen bezala 3. mailako ikasleek duten espazioa oso tradizionala da eta kirolera oso bideraturik dago. Honenbestez teorian ikusi dugunarekin bat egiten du; kirol pistak nagusi dira, irakasleek mailen arabera patioako espazioak mugatzen dituzte eta ikasleek ez dute espazioa naturalarekin kontakturik, nahiz eta ikastola espazio naturalean kokatzen den. Freirek (2011) azaltzen duen bezala, eskola patioak normalean zemenztuz osatutako zoladura bat besterik ez da izaten eta ikasleek kirol azpiegituraren bat aurki dezakete eremu horretan.

Aurretik komentatu dudana bezala, Ibai Ikastolak sistema berezi bat erabiltzen du jolas-orduetarako; 3 egun baloirik gabe, egun bat futbolera eta beste egun bat futbola ez den jolasetan aritzeko. Marko teorikoan ikusi dugun bezala, Lehen Hezkuntzan normalean prozesu bat hasten da. Prozesu horretan, neskek kirola egiteari uzten diote pixkanaka, eta fisikoki pasiboagoak diren jardueretikiko interes handiagoa erakusten dute. Bestetik, futbola gustuko ez duten haur batzuek ere pista-espazioak okupatzen dituzte, jarduera horrek sortzen duen presentziak, garrantziak eta estatusak eraginda, eta gizarteak markatutako genero rolaekin bat egiteko nahiarekin batera (Espainiako Gobernua, d.g.). Gainera, futbola gustuko duten ikasleek jolastokiaren erdiko espazioa erabiltzen dute, eta futbola gustuko ez duten ikasleek, berriz, patioaren zokoetan sartzen dira (Marín, 2010). Guzti honekin amaitzeko intentziora irazi du Ibai Ikastolak sistema berezi hau.

Behatu dudanaren arabera, esan dezaket sistema honek ez dituela espero diren fruituak ateratzen. Lehenik eta behin, ikasleei patiorako futboleko zelai bat eskeintzen zaie eta azken finean, soilik 5 egunetatik behin jolas dezakete futbolera. Gakoa ez da ikasleei futbolera jolasten debekatzea, baizik eta ikasleei aukera desberdinak eskeintzea. Horretaz gain, behaketak kontuan hartuta (ikus eranskina 9.2.), sistema honek ez du bilatzen duen hori betetzen. Datuetan ikusi dezakegun bezala, ikasle gehiago geratzen dira HIPI gelan, hau da, ez dira aire librerara ateratzen, baloirik gabeko egunetan. Egun hauetan, 6 eta 7 ikasle geratu dira HIPI gelan. Baloia izan dugun egunetan aldaketa handia da, astearte eta ostegunaren artean. Futbolera jolasteko dagoen egunean, 4 ikasle geratu ziren HIPI gelan eta futbola ez den beste edozein jarduerara jolasteko duten egunean ordea, ikasle bakar bat joan zen HIPI gelara soilik.

Ikasleek egiten dituzten jarduerari dagokionez, baloirik gabeko egunetan jarduera fisikoa asko jeisten da. Gainera, ikasle hauek porterialan zintzilikatu ziren buruz behera edo papera edo haien zapatilak erabiliz futboleko jolasten hasi ziren. Egun hauetan, datuetan ikusi daitekeen bezala, patiora atera ziren ikasleen gehiengoa eserita egoten ziren hizketan. Honi oso lotuta esan beharra dugu, patioaren espazioa zentrala ikasle hauek erabili zutela soilik eta gainontzeko ikasleak bazterrean egon zirela eserita. Aldiz, baloia izan zuten egunetan, jarduera fisikoak gora egin zuen nabarmenki. Ikasleek gainera patioa askoz ere gehiago erabili zuten, kasu honetan, osteguneko ikaslearen %89,5 -a egon ziren patioaren gune zentrolean jolasten eta baloirik gabeko egunetan ordea, lehenengoan %14,3-a eta bigarrean %30,8-a soilik.

Honenbestez, baloia debekatzen den egunetan ikasleek ez dute patioaren gune zentrala erabiltzen eta ikasle asko eserita egoten dira patioaren albo batean. Gainera, ikasle batzuk futbolera jolasten egoten dira, bai haien zapatilak erabiliz, bai aluminiozko papera erabili edo ikasleek hamaiketako bezala eramaten dituzten hainbat gauza erabiliz. Horretaz gain, ikasleak aspertuak egoten direnez haien osasunerako oso arriskutsuak diren jarduerak egiten dituzte, adibidez futboleko porterialatik zintzilikatzen dira. Azken finean, ikasleei baloia debekatzen diete, futbolera bideratua dagoen espazio batean eta ikastetxearen partetik beste baliabiderik eskeini gabe. Argi dago, baloia debekatzen ez den egunetan ikasle gehiago ateratzen direla patiora eta gehiago erabiltzen direla espazio zentralak, honenbestez, ikasleei baloia debekatzeak ez du inongo onurarik ekartzen. Gainera, ikus dezakegu ostegunak bereziki arrakasta handia duela eta ikasle asko ateratzen direla patiora. Azken finean, ikasleak

modu libreago batean aritu behar dira eta honela jasoko dituzte jolas-orduak dituzten onurarik handienak.

Laburbilduz, 3. mailako ikasleei egokitzen zaien espazioak gabezia asko ditu eta datuetan ikus dezakegun bezala, Ibai Ikastolak jolas-ordurako duen sistemak ez du arrakastarik. Ikastetxeak ezin du 5 egunetatik 4 egunez debekatu futbola eta 5 egunetatik 3 egunez baloia debekatu, eskeintzen zaien espazioa kontuan hartuta eta beste inongo baliabiderik eman gabe. Laorden eta Pérezek (2002) dioten bezala, eskolako espazioa guztiak koherentziaz eta gure proiektuak kontuan hartuta antolatu behar ditugu.

## 7.- HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Aurretik esan dudana bezala Ibai Ikastolako patioa oso tradizionala da, kirol azpiegitura ugari betetako zementuzko zoladura bat da. Marko teorikoan ikusi dugun bezala naturarekin erlazio zuzena duten patioak onuragarriak dira ikasleentzako eta hori izango litzateke nire proposamen nagusia Ibai Ikastolarentzako, haien patioetan elementu naturalak txertatzea. Gainera, Ibai Ikastola, mendixka batean aurkitzen denez, elementu naturalez inguraturik dago, bertan baratz bat eta guzti dute baina elementu hauek ikasleengandik banaturik daude hesien bidez. Honenbestez, teorian ikusi dugunaren arabera oso interesgarria litzateke, patioan belardiak, zuhaitzak eta landareak txertatzea (Kweon, Sullivan, eta Wileyren, 1998) eta esan dudana bezala inguru horretan honelako elementu asko topa ditzakegu. Bestetik, esploraziorako eta jolaserako espazioak egotea oso onuragarria litzateke (Dyment eta Bell, 2008), aukera polita izango litzateke ikasleek baratzera joateko aukera izango balute, beti ere modu antolatu batean. Bertan, inguru naturala esploratzeko eta bertatik ikasteko aukera izango zuketean ikasleek. Gainera badaude beste zenbait aukera ikasleek ingurune naturalean jolasteko, entretenitzeko, ikasteko eta esploratzeko; eskolako lorategi bat (Kuo eta Sullivan, 2001), jolas naturalentzako gune bat ezarriz, non ikasleek elementu naturalak erabiliz jolastu daitezken edota aire librean ikasleek irakurri, hitz egin edo mahi jokoetara jolasteko lasai txoko bat edukiz. Azken hau, ikasleek HIPI gelan egiten dituzten jarduerak egiteko gune bat izango litzateke baina aire zabalera ateratzeak dituen onurak gehituz. Honen harira kontuan eduki behar dugu 20 ikasletik 12k haien hobekuntzarako proposamenetan elementu naturalak eskatu dituztela. Honela, haientzat onuragarria izateaz gain, ikasleek ere elementu hauek edukitzeko irrikitan daude.

Marko teorikoan ikusi dugun bezala, naturan gauzatzen den jarduera motorrak onura asko ditu ikasleengan, bai alderdi akademiko, kognitibo eta osasunean (Guillen, 2019). Hala

ere, Ibai Ikastolak LH 3. mailako ikasleentzat ez du futbola ez den bestelako jarduerarik sustatzen. “Tierras en las manos” web guneak dioen bezala, Finlandian egin diren azterketek agerian utzi dute haur guztiek ez dutela kirolaz gozatzen, esperientzia negatiboekin lotzen dutelako. Hala ere, kirola gustatzen ez zaien ikasle askori mugimendua eta jarduera fisikoak gustuko dituzte, dantza esate baterako. Honekin loturik, “tierra en las manos” web guneko idea batean oinarrituz, honako hau proposatuko dut; Ibai Ikastolako patioan dantza eta gorputz adierazpenerako gune bat txertatzea. Agian, pentsatu daiteke dantza edo gorputz adierazpena edonon egin dezaketela ikasleek baina garrantzitsua da ikasleei jarduera hauek gauzatzeko gonbidapena egitea eta aukera desberdinak eskeintzea. “Tierras en las manos” web gunean dioen bezala, dantza eta gorputz adierazpen askeak, mugimendua, eta elkarrekintza soziala ahalbidetzen ditu. Garapen multidimentsionala eta holistikoa ahalbidetzen du, eta horrek hainbat arazo mental eta bazterketa prebenitzen ditu. Gainera, ikasleei ingurune naturalean aritzeak ekartzen dizkien onura guztiak ere gehitu behar dizkiogu. Jarduera hauek sustatzeko ez dugu aparteko gauzarik behar, oholtza txiki batekin nahikoa izango dugu, ikasleei jarduera hauek gauzatzeko gonbidapena izan dezaten. 9.5. eranskinean ikus ditzazkegu adibide batzuk, non material gutxi erabiliz ikasleei aire zabalean jarduera desberdinak gauzatzeko aukera eta gonbidapena emten diegun.

Ibai Ikastolak duen sistema bereziaren inguruan hitz egingo dut orain. Lehen esan bezala honek gabezia batzuk dituela uste dut, ikasleei eskaitzen zaien espazioa kontuan hartuta. Nire ustez Ibai Ikastolak aukera eta alternatiba desberdinak eman behar dizkiete ikasleei eta horretarako ideai hauek proposatzen ditut. Ikasleei eskolako baratzera joateko aukera ematea, Gorputz Hezkuntzan joko desberdinak irakastea ikasleek patioan jolasteko aukera desberdinak eduki ditzazten eta aire librean ikasleek mahi jokoetara jolasteko aukera izatea ere aukera aproposa iruditzen zait. Gainera, ikasleek aukera gehiago eduki ditzaten, ikasle guztiek patio osoa erabiltzea ideia interesgarria litzateke. LHko 1. eta 2. mailako patioak matenduko beharko lirateke, azken finean, ikasle hauek oraindik oso gazteak dira eta haietzako espazioak matenduko genituzke baina hemendik aurrera ikasleei patio osoan zehar ibiltzeko aukera ematea onuragarria litzateke Honela, ikasleak ez dira behartuak ikusten gune konkretu batean egotera eta gustuko duten beste gune batean aritzeko aukera edukiko zuketean. Gainera, ikasleen bakarkako eta taldekako esplorazioa sustatuko genuke eta ez genituzke ikasleak debekatuko haien gustuko jarduerak egitera. Geek-en arabera (2007), jokorik askeenetan jokalariai askatasun handiagoa du mundu birtuala esploratzeko eta erabakiak hartzeko; jokorik zuzenduenetan, berriz, jokalariai aurretik ezarritako gidoi edo



bilbe bat jarraitzen du. Ikasleei aukera eman behar diegu nahi duten jolas eta jardueretan ibiltzeko eta horretarako ikastolako gune desberdinetan aritzeko aukera eman behar diegu.

Nire ustez, ikasleek duten espazioa kontuan hartuta, ezin zaie ikasleei 3 egunetan baloia debekatu inongo jarduera edo aukera desberdinik proposatu gabe. Honenbestez, espazioak ez dizkienez ikasleei aukera desberdinak eskeintzen, ikastetxeak jarduera desberdinak proposatzea eta mugak kentzea alternatiba egoki bat izan daiteke. Ikasleak ez dira behartuak egon behar jarduera hauek gauzatzera, haien denbora libre da eta, baina gutxienez espazioak ematen ez duen aukera hori eskeini dezake Ibai Ikastolak.

Euria egiten duen egunetan ikasleei ikasgela ez den beste gune bat proposatzea interesgarria izango litzateke. Ikasleak egunean ordu asko pasatzen dituzte ikasgelan eta jolas-orduan bertatik ateratzea oso onuragarria da ikasleentzako. Kanpoko argiak D bitaminaren sintesia eragiten du, eta, hainbat ikerketak erakutsi dutenez, horrek ikaskuntza akademikoa eta produktibitatea areagotzen ditu (Pica, 2010). Honenbestez, HIPI gela, sarreran daoen patio (ikus eranskina 9.4.1.), zeinak aterpea duen, eta ikastetxeko gimnasioak ikasleentzako irekiak egotea ideia paregabea izango litzateke.

## 8.- BIBLIOGRAFIAK

Bailenson, J. N., eta Yee, N. (2008). Virtual interpersonal touch: Haptic interaction and copresence in collaborative virtual environments. *International Journal of Multimodal Interfaces*, 37, 5-14. <https://doi.org/10.1007/s11042-007-0171-2>

Burción, S. (2015). *El recreo libre y el recreo dirigido, comparación de conductas del alumnado para la mejora de la convivencia*. (Gradu amaierako lana). Universidad de Valladolid, Espainia. [Htps://uvadoc.uva.es/bitstream/10324/10647/1/TFG-G%20107](https://uvadoc.uva.es/bitstream/10324/10647/1/TFG-G%20107)

Bonnemaison, V., eta Trigueros, C. (2005). Utilización de los recreos como espacios educativos. *Ef deportes*, (80).

Chaves Álvarez, A. L. (2013). Una mirada a los recreos escolares: El sentir y pensar de los niños y niñas. *Revista Electrónica Educare*, 17, 67-87.

Cols, C., eta Fernández, P. (2016). *Educación, tierra y naturaleza. Educación y comunidad*. In Comunicación presentada en el congreso celebrado en Bressanone/Brixen (Italia), 2016ko

[HYps://elnousafareig.files.wordpress.com/2016/12/educacion-y-comunidad.pdf](https://elnousafareig.files.wordpress.com/2016/12/educacion-y-comunidad.pdf)

Cortés, E. eta Curcoll, L. (2021eko Martxoaren 3a). *Los patios escolares son espacios privilegiados para garantizar el juego, el contacto con la naturaleza y los aprendizajes al aire libre*.

<https://institutinfancia.cat/es/blog/els-patis-escolars-son-espais-privilegiats-per-garantir-el-joc-el-contacte-amb-la-natura-i-els-aprenentatges-a-laire-lliure/>

Dadvand, P., Nieuwenhuijsen, M. J., Esnaola, M., Forn, J., Basagaña, X., Alvarez-Pedrerol, M., Rivas, I., Lopez-Vicente, M., Pascual, M., Su, J., Jerret, M., Querol X., eta Sunyer, J. (2015). Green spaces and cognitive development in primary schoolchildren. *Proceedings of the National Academy of Sciences*, 112 (26), 7937-7942.

<https://doi.org/10.1073/pnas.1503402112>

De Francisco, N. (2016). *Aprendo en el recreo. Una guía para desarrollar habilidades sociales en alumnos con TEA en el entorno educativo*. Autismo Sevilla.

<http://www.autismosevilla.org/descargas/Aprendo-en-el-recreo.pdf>

Dyment, J. E., eta Bell, A. C. (2008). Grounds for health: The intersection of green school grounds and health-promoting schools. *Environmental Education Research*, 14 (1), 77-90.

<https://doi.org/10.1080/13504620701843426>

Espainiako Gobernua (d.g.). *Guía de patios coeducativos*.

[https://ceice.gva.es/documents/169149987/172590358/Guia\\_de\\_patis\\_coeducatiu\\_cas.pdf](https://ceice.gva.es/documents/169149987/172590358/Guia_de_patis_coeducatiu_cas.pdf)

Faber Taylor, A., eta Kuo, F. E. (2009). Children with attention deficits concentrate better after walk in the park. *Journal of Attention Disorders*, 12 (5), 402-409.

<https://doi.org/10.1177/1087054708323000>

Flanagan, M. (2009). *Critical play: Radical game design*. MIT Press.

Freire, H. (2011). *Educar en verde: ideas para acercar a niños y niñas a la naturaleza*. Barcelona: Graó

Granic, I., Lobel, A., eta Engels, R. C. (2014). The benefits of playing video games. *American Psychologist*, 69 (1), 66-78. <https://doi.org/10.1037/a0034857>

Gee, J. P. (2007). What video games have to teach us about learning and literacy. Palgrave Macmillan.

Guillén, J. C. (2019ko Abenduaren 30a). *Beneficios del aprendizaje en contacto con la naturaleza.* Escuela con cerebro. <https://escuelaconcerebro.wordpress.com/2019/12/30/beneficios-del-aprendizaje-en-contacto-con-la-naturaleza/>

Henderson, A. T., eta Mapp, K. L. (2002). A new wave of evidence: The impact of school, family, and community connections on student achievement. National Center for Family & Community Connections with Schools.

Huizinga, J. (1938). *Homo Ludens: A study of the play-element in culture.* Routledge

Huizinga, J. (1955). *Homo ludens: A study of the play-element in culture.* Beacon Press.

Ibai ikastola. (d. g.). <https://ibaiikastola.hezkuntza.net/eu/hasiera2>

Jaramillo, D. (2014). El recreo: *Huellas del otro en el patio escolar.* *Revista Impetus*, 7 (2) 59-63. <http://dx.doi.org/10.22579/20114680.43>

Kuo, F. E., eta Sullivan, W. C. (2001). Environment and crime in the inner city: Does vegetation reduce crime? *Environment and Behavior*, 33 (3), 343-367. <https://doi.org/10.1177/00139165013333002>

Kweon, B. S., Sullivan, W. C., eta Wiley, A. R. (1998). Green common spaces and the social integration of inner-city older adults. *Environment and Behavior*, 30 (6), 832-858. <https://doi.org/10.1177/001391659803000605>

Laorden, C. eta Pérez, C. (2002) El espacio como elemento facilitador del aprendizaje. *Revista Pulso*, 25, 133-146.

Larraz, B. A. (1994). *El acondicionamiento de los espacios exteriores escolares. Motricidad y armonía*. Jornadas sobre Motricidad y Armonía en el joven niño. In Comunicación presentada en Bordeaux, 1994ko Azaroaren 18-20. <http://www.educacionfisicaescolar.es/2016/01>

Lieberman, D. A. (2001). Management of chronic pediatric diseases with interactive health games: Theory and research findings. *Journal of Ambulatory Care Management*, 24 (1), 26-38. <https://doi.org/10.1097/00004479-200101000-00004>

Marín, I. (2009) Jugar, una necesidad y un derecho. *Aloma* (25), 233-249.

Marín, I., Molins, C., Martínez, M., Hierro, E. eta Aragay X. (2010). *Els patis de les escoles: espais d'oportunitats educatives*. <https://fundaciobofill.cat/uploads/docs/i/z/3/x/4/c/l/e/o/525.pdf>

Marín, I (2012). *Els patis de les escoles : espais d'oportunitats educatives*. Guix, 389, 33-35.

Murray, R., Ramstetter, C., eta Garner, A.. (2011). The crucial role of recess in school. *Journal of School Health*, 80 (11), 517-526. <https://doi.org/10.1111/j.1746-1561.2010.00537.x>

Pavía, V. (2005). *El patio escolar: el juego en libertad vigilada*. <https://cutt.ly/rUzx1nX>

Pellegrini, A. D., eta Bohn, C. M. (2005). The role of recess in children's cognitive performance. *Trends in Neuroscience and Education*, 4 (3), 159-163. <https://doi.org/10.3102/0013189X034001013>

Pérez, L., eta Collazos, T. (2007). *Los patios de recreo como espacios para el aprendizaje en las instituciones educativas. Sedes Pablo Sexto en el Municipio de Dosquebradas*. (Doktorego tesia). Universidad Tecnológica de Pereira, Kolonbia. <https://repositorio.utp.edu.co/server/api/core/bitstreams/2cc9d33b-af84-4338-ad39-44c337eafc01/content>

Piaget, J. (1962). *Play, dreams, and imitation in childhood*. W. W. Norton & Company.

Pica, R. (2010). *Why Kids Need Recess?*.

<https://pathwaystofamilywellness.org/childrens-health-wellness/why-kids-need-recess.html>

Pons, C. (2017). *El declive de la media hora de patio. Replanteando el tiempo de "recreo"*.

<https://cutt.ly/zUzcotO>

Prensky, M. (2001). *Digital game-based learning*. McGraw-Hill.

Ridgers, N., eta Stratton, G. (2005). Physical Activity during school recess: The Liverpool Sporting Playground Project. *Pediatric Exercise Science*, 17, 281-290.

<https://doi.org/10.1123/pes.17.3.281>

Salen, K., eta Zimmerman, E. (2004). *Rules of play: Game design fundamentals*. The MIT Press.

Sutton-Smith, B. (1997). *The ambiguity of play*. Harvard University Press.

Squire, K. (2011). *Video games and learning: Teaching and participatory culture in the digital age*. Teachers College Press.

Taylor, A. F., Kuo, F. E., eta Sullivan, W. C. (2001). Coping with ADD: The surprising connection to green play settings. *Environment and Behavior*, 33 (1), 54-77.

<https://doi.org/10.1177/00139160121972864>

Vygotsky, L. S. (1978). *Mind in society: The development of higher psychological processes*. Harvard University Press.

Wells, N. M. (2000). At home with nature: Effects of "greenness" on children's cognitive functioning. *Environment and Behavior*, 32 (6), 775-795.

<https://doi.org/10.1177/00139160021972793>

8 ideas de escenarios para el jardín o el patio de la escuela y sus beneficios. (d.g.). *Tierra en las manos*.

<https://www.tierraenlasmanos.com/ideas-escenarios-y-teatros-jardin-o-patio-escuela/>

## 9.- ERANSKINAK

### 9.1.- Ikasleekin elkarrizketak

#### 1. Ikaslea

- Kirola egitea gustatzen zaizu? eta futbolera jolastea?
  - “Kirola pixkat eta futbola asko”.
- Gustuko dezu egokitu zaizuen patioa?
  - “Gustuko dut baino porteriei sarea jartzea gustatuko litzaidake”.
- Patioan zer gustatzen zaizu egitea?
  - “Astearte futbolera jolasten det eta beste egunetan aspertu egiten naiz”.
- Zein da zure egunik gogokoena? Zergatik?
  - “Asteartea, futbola dagoelako eta Osteguna ere nahiko ondo dago”.
- Euria egiten duenean gelara etortzen zarete, zer iruditzen zaizu?
  - “Ondo iruditzen zait”.
- Zerbait botatzen dezu faltan?
  - “Porteriei sarea ipiniko nieke.”

#### 2. Ikaslea

- Kirola egitea gustatzen zaizu? eta futbolera jolastea?
  - “Bai, biak asko.”
- Gustuko dezu egokitu zaizuen patioa?
  - “Gustatzen zait baina porterietan sarea botatzen dut faltan”.
- Patioan zer gustatzen zaizu egitea?
  - “Futbolea jolastea gustatzen zait”.
- Zein da zure egunik gogokoena? Zergatik?
  - “Asteartea, futbol dagoelako”.
- Euria egiten duenean gelara etortzen zarete, zer iruditzen zaizu?
  - “Ondo iruditzen zait.”
- Zerbait botatzen dezu faltan?
  - “Sarea eta belardi gehiago egotea”.

#### 3. Ikaslea

- Kirola egitea gustatzen zaizu? eta futbolera jolastea?
  - “Bai, biak asko gustatzen zaizkit”.
- Gustuko dezu egokitu zaizuen patioa?
  - “Gustatzen zait”.
- Patioan zer gustatzen zaizu egitea?
  - “Futbolera jolastea”.
- Zein da zure egunik gogokoena? Zergatik?
  - “Asteartea futbola dagoelako.”
- Euria egiten duenean gelara etortzen zarete, zer iruditzen zaizu?

- “Gelara joatea ondo iruditzen zait”.
  - Zerbait botatzen dezu faltan?
    - “Kanasta bat ondo legoke.”
4. Ikaslea
- Kirola egitea gustatzen zaizu? eta futbolera jolastea?
    - “Kirola gustatzen zait baina futbola bereziki ez”.
  - Gustuko dezu egokitu zaizuen patioa?
    - “Ez zait gustatzen, gehien bat futbolerako prestatuta dagoelako”.
  - Patioan zer gustatzen zaizu egitea?
    - “HIPI gelara joaten naiz, margotzea gustatzen zait”.
  - Zein da zure egunik gogokoena? Zergatik?
    - “Osteguna, baloia dago futbola ez den zerbaitera jolasteko”.
  - Euria egiten duenean gelara etortzen zarete, zer iruditzen zaizu?
    - “Ondo iruditzen zait”.
  - Zerbait botatzen dezu faltan?
    - “Belardia eta parke bat jolasteko eta irakurtzeko. Horrela HIPI gelara ez joateko eta kanpora ateratzeko”.

5. Ikaslea
- Kirola egitea gustatzen zaizu? eta futbolera jolastea?
    - “Kirola bai, futbola ez gehiegi”.
  - Gustuko dezu egokitu zaizuen patioa?
    - “Ongi dago”.
  - Patioan zer gustatzen zaizu egitea?
    - “HIPI gelan jolastea eta marraztea”.
  - Zein da zure egunik gogokoena? Zergatik?
    - “Berdin zait zein egun den.”
  - Euria egiten duenean gelara etortzen zarete, zer iruditzen zaizu?
    - “Nahiagoko nuke HIPI gelara joango bagina “deskonektatzera””.
  - Zerbait botatzen dezu faltan?
    - “Belardia gustatuko litzaidake”.

6. Ikaslea
- Kirola egitea gustatzen zaizu? eta futbolera jolastea?
    - “Kirola gustatzen zait, futbola ez hainbeste”.
  - Gustuko dezu egokitu zaizuen patioa?
    - “Berdin zait, ondo dago”.
  - Patioan zer gustatzen zaizu egitea?
    - “HIPI gelara joatea eta mahi jokoetara jolastea”.

- Zein da zure egunik gogokoena? Zergatik?
  - “Ez zait inporta, normalean HIPI gelara joaten naizelako”.
- Euria egiten duenean gelara etortzen zarete, zer iruditzen zaizu?
  - “Ondo iruditzen zait”.
- Zerbait botatzen dezu faltan?
  - “Belardi gehiago egote ondo legoke”.

#### 7. Ikaslea

- Kirola egitea gustatzen zaizu? eta futbolera jolastea
  - “Kirola bai baina futbola ez”.
- Gustuko dezu egokitu zaizuen patioa?
  - “Ondo daude”.
- Patioan zer gustatzen zaizu egitea?
  - “HIPI gelan jolasten det normalean”.
- Zein da zure egunik gogokoena? Zergatik?
  - “Normalean HIPI gelen egoten naiz eta eguna berdina zait”.
- Euria egiten duenean gelara etortzen zarete, zer iruditzen zaizu?
  - “Gelara joatea ondo iruditzen zait”.
- Zerbait botatzen dezu faltan?
  - “Belardi gehiago nahiko nuke”.

#### 8. Ikaslea

- Kirola egitea gustatzen zaizu? eta futbolera jolastea?
  - “Bai baino futbola ez”.
- Gustuko dezu egokitu zaizuen patioa?
  - “Ondo dagoela uste dut”.
- Patioan zer gustatzen zaizu egitea?
  - “LH 4.mailako nire lehengusinarekin jolaste gustatzen zait”.
- Zein da zure egunik gogokoena? Zergatik?
  - “Berdin zait”.
- Euria egiten duenean gelara etortzen zarete, zer iruditzen zaizu?
  - “Gelara joatea ondo iruditzen zait”.
- Zerbait botatzen dezu faltan?
  - “Parke handiago bat egotea gustatuko litzaidake”.

#### 9. Ikaslea

- Kirola egitea gustatzen zaizu? eta futbolera jolastea?
  - “Kirola orokorrean pixkat baina futbola bai”.
- Gustuko dezu egokitu zaizuen patioa?
  - “Nahiko ondo daude”.
- Patioan zer gustatzen zaizu egitea?



- “Futbolera jolastea gustatzen zait”.
- Zein da zure egunik gogokoena? Zergatik?
  - “Astearte eta Ostegunak, bereziki Asteartea”.
- Euria egiten duenean gelara etortzen zarete, zer iruditzen zaizu?
  - “Ondo iruditzen zait”.
- Zerbait botatzen dezu faltan?
  - “Ondo dago baino futbolera jolasteko belarra egotea ondo legoke”.

#### 10. Ikaslea

- Kirola egitea gustatzen zaizu? eta futbolera jolastea?
  - “Batzuk, futbol ez”.
- Gustuko dezu egokitu zaizuen patioa?
  - “Ongi dago”.
- Patioan zer gustatzen zaizu egitea?
  - “Hamaiketako jatea. Gero, neri gustatzen zaizkidan gauzetan pentsatzea eta barandilan irristatzea”.
- Zein da zure egunik gogokoena? Zergatik?
  - “Berdin zait, berdin zait baloia egotea edo ez egotea”.
- Euria egiten duenean gelara etortzen zarete, zer iruditzen zaizu?
  - “Ongi nago gelan, jolasak daude eta patioan baino hobeto pasatzen det”.
- Zerbait botatzen dezu faltan?
  - “Hesiak kendu eta belardian jolastea, natura asko gustatzen zait eta”.

#### 11. Ikaslea

- Kirola egitea gustatzen zaizu? eta futbolera jolastea?
  - “Kirola gustatzen zait, futbola ez bereziki”.
- Gustuko dezu egokitu zaizuen patioa?
  - “Ez, txikia iruditzen zait, ia dena futbolerako da”.
- Patioan zer gustatzen zaizu egitea?
  - “Gehien gustatzen zaidana kanpoan jolastea da, ama eta aita jolasera”.
- Zein da zure egunik gogokoena? Zergatik?
  - “Osteguna, baloia dago eta ez da futbolerako”.
- Euria egiten duenean gelara etortzen zarete, zer iruditzen zaizu?
  - “Gelan etortzea ondo iruditzen zait”.
- Zerbait botatzen dezu faltan?
  - “Belardia eta tirolina”.

#### 12. Ikaslea

- Kirola egitea gustatzen zaizu? eta futbolera jolastea?
  - “Bai, biak asko”.
- Gustuko dezu egokitu zaizuen patioa?

- “Gustatzen zait”.
- Patioan zer gustatzen zaizu egitea?
  - “Futbolera jolastea”.
- Zein da zure egunik gogokoena? Zergatik?
  - “Asteartea, futbola dagoelako”.
- Euria egiten duenean gelara etortzen zarete, zer iruditzen zaizu?
  - “Euria egiten duenean ondo baino bustina dagoenean patiora jeistea gustatuko litzaidake”.
- Zerbait botatzen dezu faltan?
  - “Dagoen bezala ondo dago”.

### 13. Ikaslea

- Kirola egitea gustatzen zaizu? eta futbolera jolastea?
  - “Kirola egitea bai baino futbola ez gehiegi”.
- Gustuko dezu egokitu zaizuen patioa?
  - “Ez zait asko gustatzen, aukera gutxi dago”.
- Patioan zer gustatzen zaizu egitea?
  - “HIPI gelan marraztu eta jolastea”.
- Zein da zure egunik gogokoena? Zergatik?
  - “Osteguna, baloiarekin jolasten degu futbola ez den jolasetarako”.
- Euria egiten duenean gelara etortzen zarete, zer iruditzen zaizu?
  - “HIPI gelara joango bagina hobe, lasaiago egoteko”.
- Zerbait botatzen dezu faltan?
  - “Belardia eta tirolina”.

### 14. Ikaslea

- Kirola egitea gustatzen zaizu? eta futbolera jolastea?
  - “Kirola bai baina futbolera jolastea ez”.
- Gustuko dezu egokitu zaizuen patioa?
  - “Ez gehiegi, futbolera gehiegi bideratua dago”.
- Patioan zer gustatzen zaizu egitea?
  - “Kanpoan lagunekin jolastea”.
- Zein da zure egunik gogokoena? Zergatik?
  - “Osteguna, baloia dagoelako baino futbola ez den jolasetarako”.
- Euria egiten duenean gelara etortzen zarete, zer iruditzen zaizu?
  - “Ondo iruditzen zait”.
- Zerbait botatzen dezu faltan?
  - “Belardia eta parke handi bat”.

### 15. Ikaslea

- Kirola egitea gustatzen zaizu? eta futbolera jolastea?
  - “Bai, biak gustatzen zaizkit”.
- Gustuko dezu egokitu zaizuen patioa?
  - “Ondo daude”.
- Patioan zer gustatzen zaizu egitea?
  - “Lagunekin jolastea futbolera”.
- Zein da zure egunik gogokoena? Zergatik?
  - “Asteartea, futbol dagoelako”.
- Euria egiten duenean gelara etortzen zarete, zer iruditzen zaizu?
  - “Ondo iruditzen zait”.
- Zerbait botatzen dezu faltan?
  - “Horrela ondo dago”.

#### 16. Ikaslea

- Kirola egitea gustatzen zaizu? eta futbolera jolastea?
  - “Bai, biak asko”
- Gustuko dezu egokitu zaizuen patioa?
  - “Gustatzen zaizkit”
- Patioan zer gustatzen zaizu egitea?
  - “Futbolera jolastea”.
- Zein da zure egunik gogokoena? Zergatik?
  - “Asteartea, futbol dagoelako”.
- Euria egiten duenean gelara etortzen zarete, zer iruditzen zaizu?
  - “Gelan geratzea ondo iruditzen zait”.
- Zerbait botatzen dezu faltan?
  - “Sareak porterietan”.

#### 17. Ikaslea

- Kirola egitea gustatzen zaizu? eta futbolera jolastea?
  - “Bai kirola eta bereziki futbola asko gustatzen zaizkit”
- Gustuko dezu egokitu zaizuen patioa?
  - “Gustoko ditut”
- Patioan zer gustatzen zaizu egitea?
  - “Futbolera jolastea”
- Zein da zure egunik gogokoena? Zergatik?
  - “Asteartea, futbol dagoelako”
- Euria egiten duenean gelara etortzen zarete, zer iruditzen zaizu?
  - “Nahiagoko nuke itxitako espazioa batera joan, jolastera, futbolera ahal bada hobe”
- Zerbait botatzen dezu faltan?
  - “Belar artifiziala futbolera jolasteko”.

#### 18. Ikaslea

- Kirola egitea gustatzen zaizu? eta futbolera jolastea?
  - “Bai asko gustatzen zaizkit biak”.
- Gustuko dezu egokitu zaizuen patioa?
  - “Gustatzen zaizkit”.
- Patioan zer gustatzen zaizu egitea?
  - “Futbolera jolastea”.
- Zein da zure egunik gogokoena? Zergatik?
  - “Asteartea, futbol dagoelako, gustatuko litzaidake futboleko eguna Ostiralean izatea”.
- Euria egiten duenean gelara etortzen zarete, zer iruditzen zaizu?
  - “Gustatuko litzaidake espazio itxi bat jolasteko, batez ere Asteartean”.
- Zerbait botatzen dezu faltan?
  - “Futbol zelaia belarrezkoa eta takoak ekartzea zelaian jolasteko”.

#### 19. Ikaslea

- Kirola egitea gustatzen zaizu? eta futbolera jolastea?
  - “Kirola bai baina futbola ez”.
- Gustuko dezu egokitu zaizuen patioa?
  - “Ez zait gustatzen, futbolera oso bideratua dago”.
- Patioan zer gustatzen zaizu egitea?
  - “Kanpoan hitz egin eta ezkutaketara jolastea gustatzen zait”.
- Zein da zure egunik gogokoena? Zergatik?
  - “Osteguna, baloia dago eta ez da futbolerako, horrela ahal dugu bote botera jolastu”.
- Euria egiten duenean gelara etortzen zarete, zer iruditzen zaizu?
  - “Ondo iruditzen zait, ez bustitzeko”.
- Zerbait botatzen dezu faltan?
  - “Belardia faltan botatzen det”.

#### 20. Ikaslea

- Kirola egitea gustatzen zaizu? eta futbolera jolastea?
  - “Kirola eta futbola bereziki asko gustatzen zaizkit”.
- Gustuko dezu egokitu zaizuen patioa?
  - “Gustatzen zait”.
- Patioan zer gustatzen zaizu egitea?
  - “Futbolera jolastea”.
- Zein da zure egunik gogokoena? Zergatik?
  - “Asteartea, futbola dagoelako”.
- Euria egiten duenean gelara etortzen zarete, zer iruditzen zaizu?
  - “Futbolera jolasteko beste espazio batera joatea gustatuko litzaidake”.

- Zerbait botatzen dezu faltan?
  - “Belar artifiziala futbolera jolasteko eta sarea porterietan, baloia ez joateko”.

## 9.2.- Erregistro orria

### BALOIRIK GABEKO EGUNA 1

NON?	Zenbat ikasle?
HIPI gela joan dira	6
Patiora atera dira	14

ZER EGIN DUTE? (patiora atera direnak)	Zenbat ikasle?
Jarduera fisikoa egin dute	2
Fisikoak ez diren jarduerak	0
Eserita egon dira hizketan	12

PATIOKO ZEIN ESPAZIOA OKUPATU DUTE?	Zenbat ikasle?
Espazioa zentrala okupatu dute	2
Alboko espazioak okupatu dituzte	12

Gehigarria: 2 ikasle porterian zintzilik egon dira, momentu batean buruz bera ere egon dira.

### ASTEARTEA

NON?	Zenbat ikasle?
HIPI gela joan dira	4

Patiora atera dira	16
--------------------	----

ZER EGIN DUTE? (patiora atera direnak)	Zenbat ikasle?
Jarduera fisikoa egin dute	13
Fisikoak ez diren jarduerak	3
Eserita egon dira hizketan	0

PATIOKO ZEIN ESPAZIOA OKUPATU DUTE?	Zenbat ikasle?
Espazioa zentrala okupatu dute	13
Alboko espazioak okupatu dituzte	3

Gehigarria: aldaketa handia futboleko porteriak erabili direla izan da, futbolera jolasteko eta ez zintzilik egoteko.

## BALOIRIK GABEKO EGUNA 2

NON?	Zenbat ikasle?
HIPI gela joan dira	7
Patiora atera dira	13

ZER EGIN DUTE? (patiora atera direnak)	Zenbat ikasle?
Jarduera fisikoa egin dute	4
Fisikoak ez diren jarduerak	0

Eserita egon dira hizketan	9
----------------------------	---

PATIOKO ZEIN ESPAZIOA OKUPATU DUTE?	Zenbat ikasle?
Espazioa zentrala okupatu dute	4
Alboko espazioak okupatu dituzte	9

Gehigarria: ikasle batzuk futbolera jolasten egon dira papelarekin edo botilekin. Beste batzuk porterian zintzilik egon dira. Gaur ez zegoen gure kurtsoko inor HIPI gelan, denak atera dira patiora.

#### OSTEGUNA

NON?	Zenbat ikasle?
HUPI gela joan dira	1
Patiora atera dira	19

ZER EGIN DUTE? (patiora atera direnak)	Zenbat ikasle?
Jarduera fisikoa egin dute	17
Fisikoak ez diren jarduerak	0
Eserita egon dira hizketan	2

PATIOKO ZEIN ESPAZIOA OKUPATU DUTE?	Zenbat ikasle?
Espazioa zentrala okupatu dute	17

Gehigarria: gaur jende asko egon da patioan eta jarduera fisikoan aniztasun asko ikusi dut.

### 9.3.- Zuzendariarekin elkarizketa

- **Zenbat ikasle daude ikastolan? zenbat maila daude eta zenbat lerro maila bakoitzeko?**

“Momentuz 2 lerro ikastetxea gera, ikusiko degu datorren ikasturtera begira, jaiotze tasa jeisten ari delako, hori igarriko degu baina momentuz 2 lerro. Guztira 348 ikasle dira, 99 HHn eta LHn 249”.

- **Zenbat langile daude ikastolan? ze langile mota daude?**

“Guztira 43 gara. Horietan sartu daude 40 irakasleak eta 3 hezitzaile. Irakasleen barruan adibidez PTa, logopeda, aholukaria, jangelako arduradu, zuzendaritza etb. daude. Gero beste profesional batzuk daude, kanpoko agenteak direnak, berritzegunetik gure HPBko ikasleen balorazioa edo jarraipena egitera etortzen direnak, adibidez fisioa edo terapeuta okupazionala, ikaslearen beharraren arabera. Espzialista hauek ez dira 43 langile horietan sarturik”.

- **Zerk egiten du zentrua berezi?**

“Aniztasuna. Curriculumak inkusioa behin eta berriro aipatzen du eta Ibai Ikastola zentzu honetan aspalditik ari da lanean. Ikastetxe irekia da gurea, aniztasuna zerbiat positibo gisa ikusten dugu, aniztasun gela dugu adibidez. Elkarbizitza funtsezkoa da guretzat, gure oinarrietan golden 5 dago, irakasleek 5 eremu kontuan izanda lan egin behar dute, ikasle guztien gana iritsi ahal izateko. Askotan jarrera desegokia duten ikasleetan jartzen degu arreta asko eta honekin bilatzen deguna da ikasle guztiei garrantzia ematea. 5 esparru lantzen dira; harremanak eraikitzen, giro soziala, gelako kudeaketa, familia eta ikaskuntza doituia, azken



honek ikasle bakoitzari behar duena eskaintzean datza. Ikastetxean jarrera desegoki oso gutxi aurkitzen ditugu, organu gorenera eramateko modukoak, kasu larriak salbuespen dira”.

**- Ze gela mota desberdin daukazue?**

“HHTik hasiko gera, berezienak. 2 psikomotrizitate gela ditugu, bat behian eta bestea goian. Musika gela, 2 ingeleseko gela eta orain ingeleseko 3 irakasle daudenez, ingelesa eta eta bikoizketak emateko beste gela bat. HIPI gela bat daukagu, liburutegia, informatikako gela bat, gimnasio bat eta atezainaren etxean zen espazio horretan proiektu bat aurkeztu genuen pasaden urtean eta berri egin degu. Bertan sukaldea, komuna eta etorkizuneko gela bat daukagu. Bertan pantaila bat, material berri asko eta Chromebook-ak ditugu, oso polita geratu dena. Gainera, bi jangela ditugu, bat handia eta bestea txikia. Goiko solairuan, 2 gela anitz eta zeramika gela bat aurki ditzazkegu”.

**- Patioari dagokionez, nola antolatzen duzue espazioa?**

“Jolastokiko ordutegia bat da, ikasle guztiak banatzeko espazioa dugulako. Egia da, pandemiarekin desberdin egin genuela baina hori salbuespena izan zen. Ordutegia 11:00etatik 11:30etara da. HH 2 eta HH 3 beraien kabuz funtzionatzen dute eta normalean 10:30etan hasten dute haien jolasordua. HH 4 eta 5 batzuetan 10:30 etan hasten dute patio eta beste batzuetan 11:00etan. 2 urtekoek hain patio propio dute, zuzenean ikasgelarekin konektatua dagoena (ikus eranskina 9.4.2.), 3 urtekoek parke bat dute beraientzan (ikus eranskina 9.4.3.), 4 urtekoek erdiko aterpea dute beraientzat (ikus eranskina 9.4.4.) eta 5 urtekoek saskibaloiko zelai bat (ikus eranskina 9.4.5.). Behiko patioan, atarian parke bat dugu eta eguraldi txarra egiten duenean HH3 eta HH2ko ikasleek erabiltzen dute. LHn, ikasleak 3 eremu nagusitan banatzen ditugu. Goiko futbol zelaietan 3. zikloa kokatzen da (ikus eranskina 9.4.7.), erdiko patioan 2. zikloa kokatzen da (ikus eranskina 9.4.6.) eta azkenik 1. zikloa behiko aterpean kokatzen dira (ikus eranskina 9.4.1.). Eguerdian, jangela eta jarduera desberdinak direla eta eremuen banaketa hau berrantolatu egiten da”.

**- Zein ezaugarri ditu eskola kokatuta dagoen ingurune honek? Inguruneak eragina ahal du ikastolan? Eta patioan?**

“Ibai ikastola hasiera batean pribatua zen eta gero publikatu zenean Eusko Jaurlaritzaren eskuetara pasa zen. Ikastetxea handia da, erainkin handikoa, bere garaian COU arte ematen zirelako klaseak eta gela asko ditugu, hori da gure ezaugarrietako bat, ez da berez LH arte klaseak emateko sortu zen zentru bat. Ibai Ikastola ibaeta auzoan kokatu dago eta

horrek ezaugarri batzuk ditu. Gure ikasleak gehien bat auzokoak dira, Errotaburu, Ibaeta, Igara, Berio, Benta Berri eta Lugaritz eta Pagolako ikasleren bat ere bai. Ikastetxea mendixka batean dago kokatuta eta honenbestez gure orografiak ikasleak eskolara nola etortzen diren baldintzatzen du; oinez, kotxez edo autobusez. Ezaugarri honengatik hezkuntzak garraioa jartzen du gure ikasleentzat. Beraz, ikasleek hezkuntzak eskeintzen duen autobus zerbitzua dute eta bestetik, gure ikastetxetik Ibaetako Carlos Santa Maria plazara zuzenean jeisten den eskailera batzuk ere badaude.

Ibai Ikastola mendi gune batean kokatzen da baina gure patioak garai batekoak direla eta orain jolastokiaren eraldaketaren inguruan lanean gabiltza, natura ikastolan berriz ere sartzeko intentzioarekin. Ezaugarri hauek baldintzatzen dute gure eguneroko funtzionamendua”.

#### - **Nola sortu zen jolastokiaren eraldaketaren ideia?**

“Parte hartzea aktiboa da, guraso elkarte bat dago, non eguerdiko jarduerak eta eskolaz kanpoko kirola beraiek antolatzen dituzten. Gainera, pasaden ikasturtean haien batzordean eman zen jolastokiaren eraldaketaren lehenengo urratsa”.

### 9.4.- Ibai Ikastolako patioaren argazkiak

#### 9.4.1.- Sarrera/Patio 1. zikloa





9.4.2.- Patioa HH2



### 9.4.3.- Patioa HH3





9.4.4.- Patioa HH4



9.4.5.- Patioa HH5



#### 9.4.6.- Patioa 2. zikloa



\*Soilik zelai erdiari atera diot argazkia, beste erdian gorputz hezkuntzako saio bat gauzatzen ari zelako.





#### 9.4.7.- Patioa 3. zikloa



#### 9.5.- Dantza eta gorputz adierazpenerako guneak



(Iturria: Tierra en las manos, d.g.)



(Iturria: Tierra en las manos, d.g.)



(Iturria: Tierra en las manos, d.g.)